



EROSKETA ARDURATSUA

Ikastetxeentzako gida praktikoa



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa



alboan
ONG JESUITA-FUNDAZIOA

Erosketa Arduratsua

Ikastetxeentzako gida praktikoa
2023ko abendua

Argitalpen hau Alboan GGKEak eta REAS Euskadik sustatutako eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatutako "Bizitzaren zerbitzura dagoen ekonomia ikuspegi lokal-global batetik egiteko praktikak eta proposamen ekosozialak" proiektuaren parte da. Egiterakoan, hainbat ikastetxeren ekarpenak eta kontrastea izan dira kontuan.



Egilea: Carlos Askunze Elizaga

Diseinua eta maketazioa: www.ojobuey.com

Itzulpena: Lore Bilbao Aboitz

Inprimaketa: Gráficas Lizaso

Lan hau askatasunez kopia, banatu eta komunikatu ahal izango da, betiere jatorrizko egilea nor den aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Aldatu, eraldatu edo lan eratorria sortzen bada, lizentzia berarekin bakarrik banatu ahal izango da.



REAS Euskadi Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Ekonopolo. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa
Harrobi plaza 4, 48003 Bilbo
944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.eus

www.reaseuskadi.eus

f X @ @REASEuskadi

Alboan

Aita Lojendio 2, 2. 48008 Bilbo
Tel: 944 151 13 | Faxe: 944 161 938

Barañaingo etorbidea 2, 31011 Iruña
Tel: 948 231 302 | Faxe: 948 264 308

Andia kalea 3, 20004 Donostia
Tel: 943 275 173 | Faxe: 943 320 267

Estenaga apezpikua 1, 01002 Vitoria-Gas
Tel: 945 202 676 | Faxe: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

f @alboan X ALBOANongd alboan.tv

AURKIBIDEA



1

Aurkezpena
02



2

Zer da
erosketa
arduratsua?
04



3

Erosketa
arduratsua
ikastetxeetan
10




4

Enpresa
hornitzaileak
hautatzea
14



5

Erosketa
arduratsua
egiteko gizarte-
eta ingurumen-
irizpideak
18



6

Erosketa
publiko
arduratsua
hezkuntza-
sektorean
28



7

Eranskinak
32



- 33 I. ERANSKINA: Gizarte- eta ingurumen-konpromiso handiena duten enpresak
- 38 II. ERANSKINA: Gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna sustatzeko ziurtagiriak, etiketak eta ekimenak
- 44 III. ERANSKINA: Enpresa hornitzaileentzako galdetegia (eredua)

Taula garrantzitsuak

- 04 Erosketa arduratsuaaren definizioa
- 06 Bizitzaren jasagarritasuna eta ekonomia sozial eta solidarioa
- 08 Zer da kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea?
- 08 Erakundeetako erosketa arduratsuaaren ezaugarriak
- 09 Nola zehazten da erosketa arduratsuko politika?
- 12 Ikastetxeetan erosketa arduratsua –publikoa eta pribatua– egiteko aukerak daude
- 13 Kontsumo arduratsua eta hezkuntza-jarduna
- 15 Ezaugarri sozial eta jasagarriak dituzten 14 enpresa mota
- 16 Ziurtagiri alternatiboak: auditoria sozialak eta partaidetza-sistemak

- 17 Enpresa hornitzaileak hautatzeko iturriak
- 19 “Distira guztiak ez dira urre” (hornidura-kateei buruz)
- 20 “Gauza merkea, luzera garesti” (bidezko eta bidegabeko prezioei buruz)
- 20 Kontratu-betebeharrak eta lankidetzak-hitzarmenak
- 21 Erosketa arduratsua egiteko 10 gizarte- eta ingurumen-irizpide
- 26 Erosketa arduratsurako gizarte- eta ingurumen-irizpideak hautatzeko adibideak, zerbitzu, produktu eta hornidura motaren arabera
- 29 Sektorre publikoko kontratuen legearen aplikazioa hezkuntzaren eremuan



1

AURKEZPENA

Kontsumoa sistema kapitalistaren funtzionamenduaren palanka nagusietako bat bihurtu da. Ez neurrigabeko kontsumoak, ez neurrigabeko ekoizpenak ez dituzte kontuan hartzen gure planetaren gizarte- eta ingurumen-mugak. Errealitate hori aintzat hartuta, hainbat gizarte-mugimenduk, erakunde publikok eta beste eragile batzuek kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea bultzatu nahi dituzte. Kontsumo-praktikak aldatu nahi dira, gaur egun jasangarriak ez diren gizarte- eta ingurumen-irizpideetan oinarritzen den ekonomia-kate osoaren eraldaketan eragiteko.

Ikuspegi horretatik abiatuta, hezkuntzaren eta herritarren sentsibilizazioaren arloetan lan egiten da, praktika alternatibo hori biztanleriaren sektore gero eta zabalagoetara hedatzeko. Halaber, kontratazioaren legegintza-esparruetan erosketa publiko arduratsuko politika sartu da, prezioaz eta preskripzio teknikoez gain beste gizarte- eta ingurumen-irizpide batzuk txertatzeko. Era berean, gero eta eragile pribatu eta gizarte-erakunde gehiago konturatu dira politika bat egin behar dela erosketak erantzukizunaren eta jasangarritasunaren irizpideak kontuan hartuta kudeatzeko. Eta, azkenik, printzipio eta balio horiekien bat datozen kontsumo-aukerak hautatzen dituen populazio-sektorea hazten ari da.

Hain zuzen ere, argitalpen honek sentsibilizaziorako eta erosketa arduratsua kudeatzeko tresna izan nahi du sektore jakin batean, hezkuntzaren sektorean, eremu pribilegiatua baita norabide horretan lan egiteko. Alde batetik, oro har, sektore ekonomiko esanguratsua delako produktu jakin batzuen erosketan eta hainbat zerbitzu eta horniduraren kontratazioan, eta, beraz, esparru horretan ahalmen eraldatzaile handia delako. Bestalde, erosketa arduratsua egiteak aukera ematen duelako ikastetxearen kudeaketa-esparrua heziketa-idea eta -proiektuekin lotzeko; izan ere, ideia eta proiektu horiek, hainbat ikuspegi eta eredu oinarritzat hartuta, xede dituzten pertsonen sen kritikoa eta herritarren ekintza-gaitasunen garapena sustatzen saiatzen dira.

Gidak gai hauek aztertzen ditu: erosketa arduratsuaren definizioa eta ezaugarriak (2. kapitulua), ikastetxeetan dituen aukerak eta potentziala (3. kapitulua), enpresak eta produktu eta zerbitzuak hautatzeko irizpideak (4. eta 5. kapituluak) eta erosketa publiko arduratsuari buruzko legeriak hezkuntza-sektorean duen aplikazioaren laburpena (6. kapitulua). Azkenik, erosketa arduratsua bultzatzeko tresna praktiko batzuk eskaintzen ditu eranskinetan: (1) gizarte- eta ingurumen-konpromiso handiena duten enpresen zerrenda eta deskribapena, (2) etiketei eta ziurtagiriei buruzko informazioa eta (3) enpresa hornitzaileentzako galdetegia.

Alboanek eta REAS Euskadi-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak bultzatutako lan hau “Bizitzaren zerbitzura dagoen ekonomiarako jardunbide eta proposamen ekosozialak ikuspegi lokal-global batetik” izeneko proiektuaren barruan dago. Proiektu hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatu dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-eragileen gaitasunak indartzea du helburu, beren erakundeak eta praktika sozial eta ekonomikoak eralda ditzaten, justizia-irizpideen arabera trantsizio ekosoziala garatzen laguntzeko.

Bereziki, gizarte-eragile batzuk sentsibilizatu nahi dira erosketa arduratsuko estrategiak hartzearen garrantziaz, eta, horretarako, estrategia horiek ezartzen lagunduko duten tresnak eman nahi dira. Zehazki, enpresa txiki eta ertainei, hirugarren sektore sozialari eta ikastetxeei zuzentzen gatzaizkie. Kontsumo-jarduera ekonomiko garrantzitsua duten hiru eremu direlako zuzentzen gatzaizkie eragile horiei, bai eta beren nortasuna eta gizarte-eginkizun berezia direla-eta tokiko ekonomia, gizarte-kohesioa, ingurumen-jasangarritasuna eta balio eraldatzaileen garapena sustatzen dituzten proposamenetatik hurbil daudelako ere.

Badakigu politika horiek kudeaketa ekonomikoa konplexua duten erakundeetan txertatzea zaila izan daitekeela, eta, beraz, uste dugu garrantzitsua dela pixkanaka beren politikak eta jardunbidea aldatzen eta haien funtzio sozial eta ekonomiko eraldatzailea indartzen lagunduko duten urratsak ematea. Argitalpen honek bide hori egin nahi duten ikastetxeen bidaide izan nahi du.

Argitalpen hau egiteko, erosketa arduratsuaren kudeaketari buruzko prestakuntza- eta lankidetzatailer batean parte hartu duten hainbat ikastetxeren ekarpenak izan ditugu, eta haiekin kontrastatu dugu aurkezten dugun testua.

Espero dugu baliagarria izatea eta ikastetxeei aukera ematea kontsumo alternatiboaren aldeko mugimenduekin bat egiteko, gizarte hobek, eta justizia ekosozialarekin konprometituak eraiki ditzaten pertsona guztientzat eta planeta osoarentzat.

2

ZER DA EROSKETA ARDURATSUA?

Erosketa arduratsuak (EA) aukera ematen dio kontsumitzaileari (kontsumitzaile indibiduala edo kolektiboa) bere kontsumoarekin praktika eraldatzailea gauzatzeko, gure gizarteek eta planetak dituzten erronka ekosozialen premiari erantzuteko irizpideak kontuan hartuta, eta, horrez gain, tokiko ekonomiak indartzen laguntzen du, proposamen ekologista, feminista, inklusibo eta solidarioak oinarritzat hartuta.

Erosketa arduratsuaren definizioa

Erosketa arduratsua da enpresa hornitzaileak hautatzeko prozesuetan eta erakunde publikoek, enpresek, erakundeek, gizarte-eragileek eta herritarrek produktuak, zerbitzuak eta hornidurak erosterakoan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea.

EA kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea sustatzen duen gizarte-mugimendua osatzen duten ekimen-multzoaren parte da. Mugimendu horrek egungo sistema kapitalistaren funtzionamenduan kontsumoak duen funtsezko eginkizuna identifikatzen du, baita bizitzaren gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean dituen ondorio kaltegarriak ere.

Neurrigabeko kontsumo horrek, berriz, mugarik gabeko ekoizpena dakar, eta, askotan, gizarte- eta ingurumen-baldintza bidegabeetan garatzen da: langileen lan- eta gizarte-eskubideak errespetatzen ez dituzten ekoizpen-kateak, lanaren sexu-banaketa eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria, merkataritza bidegabea, ekoizpenaren deslokalizazioa, energiaren gehiegizko kontsumoa, hondakin eta emisio kutsatzaileak sortzea, etab.

Mugimendu horretan sartzen dira tokiko zerbitzuak eta produktuak, ekologikoak, bidezko merkataritzakoak eta finantza etikoak eta abar erostea sustatzen duten ekimenak, bai eta ezaugarri jakin batzuk dituzten enpresa hornitzaileei lehentasuna ematen dietenak ere: ekonomia sozial eta solidarioko enpresak, enpresa kooperatiboak eta/edo partaidetzapeko enpresak, laneratzeko enpresak, enplegu-zentro bereziak, ondasun komunaren ekonomiako enpresak, balantze hirukoitzeko enpresak edo gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko politika zorrotzak dituzten beste enpresa batzuk.

Azken finean, mugimendu hori ekonomia sozial eta solidarioaren parte da, eta, orokorrago, ekonomia eraldatzaile deiturikoen parte, hala nola ekonomia ekologikoaren, feministaren eta ondasun komunaren ekonomiaren parte. Ekonomia kapitalistarekiko ikuspegi kritikoa sustatzen du, eta ekonomia hori eraldatzen laguntzen du, bizitzaren jasangarritasunarekin lotutako irizpideetan oinarritutako jardunbide ekonomiko alternatiboak garatuz.

Bizitzaren jasagarritasuna eta ekonomia sozial eta solidarioa

Azken urteotan orokortzen joan da “bizitzaren jasagarritasuna” kontzeptu ekofeminista, ekonomia kritikoen ikerketetan, bai eta jardunbide ekonomiko alternatiboetan ere. Kontzeptu horren bidez, bizitzaren gizarte- eta ingurumen-mugak gainditu dituen hazkundearen eta garapen ekonomiko kapitalistaren ereduak dakarren mehatxua nabarmentzen da. Errealitate horren aurrean, baldintza objektiboak eta subjektiboak identifikatu eta sustatu nahi dira, izaki bizidunei bizitza betea izateko eta baldintza egokietan garatzeko aukera emate aldera.

Horretarako, ekonomia kapitalista errotik eraldatu behar da, bizitza erdigunean jarriz, eta, beraz, bizitzari eustea bermatzen duten prozesuak lehenetsiz, elkarren mendekoak eta ekomendekoak garela aitortuz. Hori lortzeko, “gizaki guztien beharrak asetzeko lan egingo duen ekonomia jasagarria” eraiki behar da, “mundu komun sozial eta naturalaren erreprodukzio-gaitasunari eutsiz (...), produkzioa eta merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzura [jarriz]”.¹

Ikuspegi horretan kokatzen dira ekonomia sozial eta solidarioaren ekimenak. Mugimendu horrek ekonomia eraldatu nahi du elkarrekikotasunarekin, lankidetzarekin, inklusioarekin, ingurumen-zaintzarekin, ingurunearekiko konpromisoarekin edo emakumeen eta gizonen arteko ekitatearekin lotutako balioetatik abiatuta. Alderdi horiek jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen dituzte pertsonak,

haien ongizate indibidual eta kolektiboa, guztion ongia, eta bizitzaren gizarte- eta ingurumen-jasagarritasunarekin lotutako prozesuak.

Era berean, mugimendu ekonomikoa, soziala eta politikoa da, plurala eta nazioartekoa, eta, beste sare eta erakunde sozial batzuekin batera, ekonomia, gizartea eta planeta eraldatu nahi dituena.

Mugimendu horretan honako hauek aurki ditzakegu: ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-sektore ugarietan jarduten duten enpresa-proiektu sozial eta kooperatiboak, finantza etikoen eta alternatiboekimena, tokiko eta nekazaritzako produktu ekologikoen sustapena, esku-hartze soziala eta komunitarioa, gizarteratze eta laneratze enpresak, bidezko merkataritza, kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea, hondakinak berreskuratzea eta berrerabilitzea, energia berriztagarrien sorkuntza eta merkaturatzea, etxebizitza kooperatiboekimena, kultur ekoizpen eta hedapen alternatiboa, tokiko eta komunitateko berrikuntza bultzatzea truke-sareen bidez, denboraren bankuen edo tokiko txanponen bidez, aldaketa ekosozialerako hezkuntza, etab.²

¹ Carrasco Bengoa, Cristina (2014): “Ekonomia, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna”, in zenbait autore: *Bizitzaren iraunkortasuna: Ekonomia Solidario, Feminista eta Ekologikoan oinarrituz eginko ekarpenak*, REAS Euskadi. Bilbo: <https://bit.ly/BizitzaIraunkor>

² Askunze Elizaga, Carlos (2018): “Transformado Euskal Herria (también) desde la Economía Social y Solidaria”, in Euskonews aldizkari digitala, 732 zk., Eusko Ikaskuntza: <https://bit.ly/ESSenEH>

Erosketa Arduratsua gizartearen gero eta maila eta sektore gehiagotara zabaldu da, eta erosketa publikoko politiken garapenean, enpresen eta gizarte-erakundeen kudeaketan edo herritarren kontsumo-praktiketan eragin du. Aipatzekoa da erosketa publikoan gizarte- eta ingurumen-irizpideak sartzeak hartu duen garrantzia; izan ere, arau-aurrerapen garrantzitsuak txertatu dira, eta gero eta sentsibilitate handiagoa dago erosketa arduratsuak tokiko ekonomia eraldatzeko eta bideratzeko duen gaitasunari buruz.

Erakunde publikoek eta nazioarteko erakundeek ere gero eta garrantzi handiagoa ematen diote kohesioa eta gizarteratzea, lan-eskubideen defentsa, genero-ekitatea edo ingurumen-jasangarritasuna sustatzen duten eredu ekonomiko berrien eraikuntzan erosketak eta kontsumoak daukaten zereginari.

Ikuspegi horretatik, eta Garapen Jasangarrirako Helburuen³ esparruan, 12. helburuan agertzen da “ekoizpen eta kontsumo arduratsua”, eta horren bidez lortu nahi da “kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriak bermatzea”. Nazio Batuen ustez, “kontsumo eta ekoizpen jasangarria gutxiagorekin gehiago eta hobeto egitea da. Kontua da hazkunde ekonomikoa eta ingurumen-degradazioa bereiztea, baliabideen eraginkortasuna handitzea eta bizimodu jasangarriak sustatzea. Beste aldetik, kontsumo eta ekoizpen jasangarriak oso lagungarriak izan daitezke pobrezia arintzeko eta ekonomia berdeetara eta karbono gutxi isurtzen duten ekonomietara igarotzeko.

Helburu horretaz gain, bistakoa da Erosketa Arduratsuak lotura duela beste helburu batzuekin ere, besteak beste 5. helburuarekin (genero-berdintasuna), 8. helburuarekin (lan duina eta hazkunde ekonomikoa) edo 9. helburuarekin (industria, berrikuntza eta azpiegitura).

Europar Batasunak, berriz, corpus dokumental eta arautzaile oso bat garatu du kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren arloan⁴ (bereziki ingurumen-arloan). Corpus horrek honako hauek biltzen ditu: Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarriari buruzko Ekintza Plan bat, etiketa ekologiko eta energetikoei buruzko Zuzentarau bat eta Erregelamendu bat eta diseinu ekologikoari buruzko beste Zuzentarau bat, Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Sistemaren (EMAS) sustapena edo produktu jasangarriei buruzko politika. Kontratazio publikoaren eremuan erosketa arduratsuak egiteko orientabideak gehitu beharko liriateke⁵, baita eskubide sozialak eta lanekoak babesteari buruzko legeria⁶ eta kontsumitzaileak babesteari buruzko legeria⁷ ere.

Era berean, antzeko esparruak aurki ditzakegu Espainiako Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeri eta administrazioetan, gero eta arreta handiagoa ematen baitiote epe labur eta ertainean gure ekonomia eta gizartearen trantsizio ekosoziala bultzatzera bideratutako estrategien garapenean erosketa eta kontsumo arduratsuek duten zereginari.

Hala eta guztiz ere, arlo horretako erakundeek eta tokiko eta nazioarteko erakundeek ekimenak oraindik ez dira nahikoak, gizarte- eta ingurumen-erronkek sortzen dizkiguten premiak direla eta. Horregatik, ezinbestekoa da presio politikoko eginkizunak bultzatzen jarraitzea, irizpide sozial, feminista, ekologiko eta solidarioak kontuan hartuta tokiko kate ekonomikoak eta globalak modu esanguratsuan aldatzen lagunduko dituzten esparru arautzaileak eta Erosketa Arduratsuak sustatzeko estrategiak (publikoak eta pribatuak) garatzeko. Gainera, lanean jarraitu behar dugu gero eta eragile eta populazio-sektore gehiagok erosketak gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna barne hartuta kudeatzeko, kontsumoa eraldaketa-palanka bihurtu dadin.

³ <https://www.un.org/sustainabledevelopment>

⁴ <https://bit.ly/ConsumoyProduccionSosteniblesUE>

⁵ <https://bit.ly/CPReUE>

⁶ <https://bit.ly/PoliticSocialesEmpleoUE>

⁷ <https://bit.ly/PoliticaConsumidoresUE>

Zer da kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea?

Kontsumo kritikoak jarrera kritikoa du kontsumoarekiko. Produktu eta/edo zerbitzu jakin batzuk kontsumitzea benetan beharrezkoa den ala ez jakitea da kontua, eta, hala badagokio, behar-beharrezkoa dena bakarrik kontsumitzea. Era berean, kontsumo masiboa sustatzen duen publizitatearekiko sen kritikoa sustatzen du; izan ere, kontsumo masiboa sustatzeko, etikaren, gizarte- eta ingurumen-justiziaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurkako irizpideak erabiltzen ditu, edo kultura jakin batzuk gutxiesten ditu.

Kontsumo kontzienteak produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriengatik kezkatutako begirada gehitzen du. Horretarako, kontuan hartzen ditu nolako lan-, gizarte- eta ingurumen-baldintzatan ekoiztu eta merkaturatu diren eta, bereziki, kontsumitzeak ekar ditzakeen ondorioak. Era berean, informazioaren jatorriari eta hornidura-kateari buruzko informazio-estandar publiko eta nahikoa sustatzen saiatzen da. Horretarako, etiketan, gizarte- eta ingurumen-ziurtagirietan edo produktuaren eta zerbitzuaren ezaugarriei edo enpresa hornitzaileari buruzko bestelako oharretan jartzen du arreta.

Kontsumo eraldatzailea kontsumitzen duenak aukeratzeko duen gaitasunari dagokio, eta ekintza hori tresna eraldatzaile bihurtzen du. Beraz, kontsumoa benetako beharrak asetzera bideratuta dago, gizartean eta ingurumenean kalterik eragiten ez duten produktuen eta zerbitzuen bidez, eta, horrez gain, enpresa- eta ekonomia-eredu alternatibo eta eraldatzailearen garapena sustatzen dute. Hala, lehentasuna ematen zaio beren ezaugarriengatik tokiko ekonomia, ekonomia feminista, ekologiko eta solidarioen garapena sustatzen duten enpresak eta produktuak eta zerbitzuak aukeratzeari.

Produktuak erosteko eta zerbitzuak eta hornidurak kontratatzekeo politiketan eta prozeduretan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzeari garrantzia aitortzeaz gain, erakundearen eremuan Erosketa Arduratsu baten kudeaketaren ezaugarri batzuk aipatu behar dira.

Erakundeetako erosketa arduratsuaren ezaugarriak

- EA politika eta prozesu espezifiko gisa txertatu behar da erakundearen identitate- eta kudeaketa-esparruan.
- Erakunde bateko erosketak konplexuak izan daitezkeenez, prozesu bat ezarri behar da, eta prozesu hori hasteko, Erosketa Arduratsua egiteko irizpideak aplikatzeko produktu eta zerbitzu jakin batzuk hautatuko dira, pixkanaka irismen handiagoko politika bihurtu ahal izateko.
- Erosketa Arduratsua lotura duten interes-talde guztien gizarte- eta ingurumen-interesei erantzuten die, eta erakundeak epe labur, ertain eta luzera duen jarduera hartzen du kontuan.
- Komenigarria da EA egiteko politika erakundearen barruan zein kanpoan jakinaraztea, bai balio erantsia nabarmentzeko, bai pertsonak eta erakundeak izaera eraldatzaileaz sentsibilizatzeko.
- Erosketa-politika bat arduratsutzat hartzen da produktuaren edo zerbitzuaren hornidura-kate osoa barne hartzen duenean. Horrela, arreta jartzen du ekoizpenaren, logistikaren, erabileraren eta mantentze-lanen, berrerabileraren eta birziklatzearen ezaugarrietan, bai eta kontratatutako horniduretan ere, ekipoak, materialak, produktuak eta zerbitzuak barne.

- Erosketa Arduratsuak harreman bat dakar enpresa hornitzaileekin, gizarte- eta ingurumen-irizpideetan oinarrituta, eta, horretarako, alde zuzenak ezarritako parametro jakin batzuk betetzea eskatuko zaie, prozedura zehatzen bidez.
- Garrantzitsua da zehaztea enpresa hornitzaileek zer baldintza betetzea espero dugun edo zer gairi buruzko konpromiso-maila ezagutu nahi dugun, betiere alderdi hauekin lotuta: portaera etiko eta arduratsua, giza eskubideen defentsa eta sustapena, lan-baldintzak, ingurumen-portaera...
- EAren izaera eraldatzailea gero eta gizarte-sektore eta -eragile gehiagok Erosketa Arduratsua egitean datza, eta, horretarako, komenigarria da erakundeak hura sustatu eta ikusaraziko duten sare, plataforma edo kanpainetan parte hartzea.

Nahiz eta adierazi dugun EAren garapena mailakatu izan daitekeela, lehen etapetan gizarte- eta ingurumen-ezaugarri jakin batzuk dituzten enpresak eta produktuak edo zerbitzuak errazago aurki daitezkeen kontratu batzuk hautatuz, komeni da praktika horiek arautzea, erakundearen Erosketa Arduratsuko politika bat egitea planteatzeko.

Erakunde baten politikak arau eta prozedura multzoa dira, arlo jakin batzuetan haren funtzionamendua arautzen eta mugatzen dutenak, eta helburuak, ekintzak eta erantzukizunen deskribapena zehazten dira. Erosketa Arduratsua egiteari garrantzia ematen bazaio, politika nagusi bihurtu daitezke erakundearen kudeaketan, eta baita erakundearen nortasunaren ezaugarri ere.

Nola zehazten da erosketa arduratsuko politika?

Erakunde baten Erosketa Arduratsuko politika dokumentu batean jaso beharko da, behar den egiturek onartua, eta honako hauek jaso ahal izango ditu:

- Aurkezpen labur bat, erakundeak bere gain hartzen duen Erosketa Arduratsuko politikaren justifikazioa, definizioa eta ezaugarriak jasota.
- Enpresa hornitzaileak eta produktuak, obrak, zerbitzuak eta hornidurak hautatzeko erabiliko diren gizarte- eta ingurumen-irizpideak (ahalik eta gehien zehaztuta) (4. eta 5. kapituluak).
- Kontratazio-prozesuari eutsiko dion antolaketa-egitura: taldeek eta pertsonen prozeduraren faseen garapenean izango dituzten erantzukizunak.
- Hainbat erakunderen arteko balizko erosketa zentralizatueta aplikatzeko jarraibideak.
- Enpresak, produktuak, zerbitzuak eta hornidurak hautatzeko prozedurak honako hauek barne hartuko ditu:
 - kontratazioaren objektua zehaztea, eskatzen diren gizarte- eta ingurumen-ezaugarriak barne,
 - enpresei egin beharreko jakinarazpena eta eskakizunak (3. eranskina),
 - hautaketa barematzeko eta/edo justifikatzeko sistema,
 - kontratua gauzatzean gizarte- eta ingurumen-baldintzen jarraipena egiteko jarraibideak,
 - amaierako ebaluazioa.
- Komunikazio publikoko estrategia eta/edo politika honen antolaketarekin zerikusia duten interes-taldeena.
- Politika berrikusteko ezarritako aldiak eta prozedurak

3

EROSKETA ARDURATSUA IKASTETXEETAN

Unibertsitatez kanpoko Ikastetxeen Estatuko Erregistroaren arabera⁸, Espainiako Estatuan 34.434 ikastetxe daude (publikoak eta pribatuak, mota, maila eta irakaskuntza guztietakoak), eta horietatik 1.568 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) daude. Datu horiei 89 unibertsitate gehitu behar zaizkie, beren tamaina eta aurrekontua direla eta, eragile ekonomiko indartsuak direnak. Zifra horiek agerian jartzen dute sektorearen pisu ekonomikoa, eta, beraz, baita haren erosketa-politiken garrantzia ere.

Estatuko hezkuntzako gastu publikoa 59.657,2 milioi eurokoa da⁹, estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazio publiko guztien aurrekontua eta titulartasun publikoko unibertsitateena barne. EAEn gastu hori 3.152,4 milioi eurokoa da.

Egia esan, estatuko gastu horren zatirik handiena langileei dagokie (% 68), baita transferentzietan ere (% 20,5), ikastetxe pribatuetarako itunetan eta dirulaguntzetan banatuta (% 12,2), ikasteko beka eta laguntzez eta programa berezietan lotutakoez gain (digitalizazioa, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoko programak, etab.).

⁸ <https://www.educacion.gob.es/centros> (2023ko uztailen kontsultatua).

⁹ Hezkuntzako gastu publikoaren estatistika (2021eko behin-behineko datuak), Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, Espainiako Gobernua: <https://bit.ly/GastoPublicoEducacionEs>

Programetara eta proiektuetara bideratutako transferentzia horietako askotan Erosketa Arduratsua egiteko irizpideak sar badaitezke ere, zenbateko handienak ondasun eta zerbitzuen kapituluan (5.118,8 milioi €, hau da, guztizkoaren % 9,6), eta kapital-gastuetan (azpiegiturak sortzeko edo ondasun amortizagarriak eskuratzeko inbertsio errealak, kapital-transferentziak eta aktibo eta pasiboen eragiketetatik eratorritako gastuak barne) biltzen dira (3.188,2 milioi €, hau da, guztizkoaren % 5,3). Finantza-gastuak ere kontuan har litezke (231,8 milioi €, hau da, guztizkoaren % 0,4), finantza-erakunde etikoak eta alternatiboak aukera daitezkeelako.

Kopuru horiei gehitu behar zaie ikastetxe pribatuek kapitulu horietan dirulaguntza publikoekin edo funts propioekin egiten duten gastua. Estatuan unibertsitateaz kanpoko 11.852 ikastetxe pribatu daude, eta horietatik 3.742 administrazio publikoekin itunduta daude, eta 8.110 ikastetxe itundu gabe (batez ere haur-hezkuntzakoak eta akademia pribatuetakoak). Era berean, egun dauden 89 unibertsitateetatik titulartasun pribatuko 34 unibertsitateak sartu behar dira.

Beraz, milaka milioi euro bideratu dira Erosketa Arduratsua egiteko politikak eta irizpideak aplikatu daitezkeen partidetara, eta, zalantzarik gabe, eragin handia izango lukete. Horretarako, lehenik eta behin, komeni da gastu motak sailkatzea, kontratisten eta diru-sarreraren jatorriaren arabera:

1. Gobernu autonomikoetako edo udaletako hezkuntza-sailek zentralizatutako ikastetxe publikoetako gastuak, kontratazio publikoari buruzko araudia bete behar dutenak.
2. Ikastetxeek proiektu eta dirulaguntza publikoekin ikastetxe publikoetan egindako gastuak, finantzaketa publikoaren baldintza eta eskakizunak bete behar dituztenak, baina kontratazio publikoari buruzko araudia bete behar ez dutenak.
3. Ikastetxe pribatuetan ikastetxeek berek proiektu eta dirulaguntza publikoekin egindako gastuak, finantzaketa publikoaren baldintza eta betekizunak bete behar dituztenak, baina kontratazio publikoari buruzko araudia bete behar ez dutenak.
4. Ikastetxe pribatuetan ikastetxeek berek beren funtsekin (kuotetatik, dirulaguntza pribatuetatik, errentamenduetatik, etab.) egindako gastuak, baldintzarik eta kontratazio publikoari buruzko araudirik bete behar ez dutenak.

Lehenengo kasuan, administrazio publikoek zuzenean egiten dituzten erosketek *Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea* bete behar dute, eta, beraz, erregulazio horren eta Erosketa Arduratsurako gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzeko ezartzen dituen jarraibideen arabera azterketa egin behar da (6. kapitulua).

Kontuan izan behar da, kasu horretan, ikastetxe publikoetako gastu garrantzitsuenak sartzen direla, besteak beste, inbertsio eta azpiegituri (obra handiak eta mantentze-lanak) eta hornidura garrantzitsuenei (elektrizitatea, ura, gasa, altzari orokorrak, sukaldea eta jantokia, etab.) dagozkienak. Beraz, beharrezkoa da lan egitea administrazio publikoek konpromiso argia har dezaten erosketa publiko arduratsuko politika bat egiteko.

Gainerako kasuetan (2, 3 eta 4), ikastetxeak berak (publikoak edo pribatuak) ezartzen du erosketa-politika, eta, beraz, araudia ez duenez bete behar, erosketa publiko arduratsuen esparruan ezarritakotik haratago joan daiteke, enpresa hornitzaileen hautaketan edo kontratatu beharreko produktu eta zerbitzuen ezaugarrietan inolako murrizketarik gabe. Kontuan izan behar da 3. eta 4. kasuetan, gainera, gastu eta inbertsio gehienei buruz hitz egiten ari garela (handiak eta txikiak). Era berean, funtsen jatorria dirulaguntza publikoena bada (2 eta 3), zenbatekoei, hautagarritasunari, justifikazioari, ordainketa-sistemei, baterako finantzaketei eta abarri buruzko araudiak bete beharko dituzte, baina enpresen hautaketa eta produktuen eta zerbitzuen ezaugarriak ikastetxeen erantzukizuna izango dira.

Ikastetxeetan erosketa arduratsua -publikoa eta pribatua- egiteko aukerak badaude

Titulartasun publikoko ikastetxeen gastuaren zati handi batek, erakundeek zuzenean gauzatutakoak, *Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea* bete behar du, eta, beraz, legeak adierazten dituen erosketa-prozeduretan gizarte- eta ingurumen-konsiderazioak aplika daitezke. Kontsiderazio horiek esleipen-irizpideetan zein betearazpen-baldintza berezietan aplikatu ahal izango dira. Era berean, kontratu edo lote jakin batzuk laneratzeko enpresentzat eta/edo enplegu-zentro berezientzat gorde ahal izango dira. Gainera, kontuan hartu ahal izango dira gizarte- eta ingurumen-etiketak eta -ziurtagiriak, bai preskripzio teknikoetan, bai kontratua esleitzeko irizpideetan.

Gainerako gastu arruntetarako, gastu txikietarako edo ikastetxe publikoen proiektuei lotutakoetarako eta ikastetxe pribatuen gastu guztietarako (publikoki finantzatuta egon zein ez), ez dago erosketa publikoari buruzko araudiaren baldintza eta murrizketarik. Ikastetxeek eurek ezarri ahal izango dituzte erosteko politikak eta irizpideak. Horiek, sozialki eta ingurumenari dagokionez, kontratazio publikoan ezarritakoak baino asmo handiagokoak izan daitezke, eta askatasun osoa izango dute enpresa hornitzaileak aukeratzeko eta produktuen, lanen, zerbitzuen eta horniduren ezaugarriak zehazteko.

Kontsumo arduratsua eta hezkuntza-jarduna

Ikastetxeen erosketen bolumen ekonomikoaz gain, Erosketa Arduratsua eta ikastetxeetako ideia eta proiektuak bat etorri behar dira; izan ere, ikuspegi desberdinak eduki arren, herritarren ariketa kritiko eta kontzienterako tresnak eskaini eta gaitasunak garatu nahi dituzten erakundeak dira. Hezkuntza-proiektuek, Erosketa Arduratsuko legeriek bezala, hezkuntzaren izaera integrala azpimarratzen dute, eta, beraz, jakintzetan trebatzeko ez ezik, balioak, gaitasunak eta ahalmenak ere hedatu nahi dituzte, pertsonak mundu komun, interdependente eta ekodependente batean moldatzeko aukera izan dezaten, besteak beste, elkarrekikotasunarekin, elkartasunarekin, parte-hartzearekin edo inklusioarekin lotutako irizpideak oinarritzat hartuta.

Horretara bideratzen da herritarrentzako hezkuntza deiturikoa. Irakasgai bat izateaz gain, zeharkako balio bihur daiteke eta izan behar du irakasgai orotan, eta ikastetxeek hainbat arlotan gauzatzen duten jardunbidearekin lotu behar da, hala nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, sexu-identitate eta -orientazioagatiko diskriminaziorik ezarekin, ingurumen-jasangarritasunarekin, ingurunearekiko konpromisoarekin, elkartasunarekin, ikastetxeko bizitzako parte-hartze demokratikoarekin, eta abarrekin.

Ikuspegi horretan sartzan da kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzaileko hezkuntza. Eremu horretan gero eta sentsibilitate handiagoa dago, eta horrek zerikusia du gizarte- eta ingurumen-arloko justiziak gure gizarteei planteatzen dizkien erronkekin eta bizitzaren jasangarritasunak eskatzen duen trantsizio ekosozialarekin bat datozen politikak eta jardunbideak bultzatzeko beharrarekin. Lan hori egiteko, erakunde publikoek, GGKEek, mugimendu sozialek (ekologistak, feministak edo bakezaleak) eta ekonomia sozial eta solidarioaren sareek eskaintzen dituzten hezkuntza-baliabide asko daude.

Esparru horretan, ikastetxeetan Erosketa Arduratsua egiteko politika bat garatzea aukera bat da erakundeen kudeaketa-prozesuak ideiekin eta hezkuntza-proiektuekin bat etor daitezen, eta bi eremuak indartzeko eta areagotzeko. Horrela, ikastetxeak bere nortasunaren eta kudeaketaren ezaugarri gisa txertatuko du Erosketa Arduratsua, eta enpresa hornitzaileekin, gurasoekin, gizarte-erakunde eta -eragileekin, erakunde publikoekin eta abarrekin duen harremanean ezaugarri bereizgarria ere izango da; horrek, eredutzat hartuta, aukera emango du jardunbide hori beste ikastetxe batzuetara, hezkuntza-sistemara eta gizarte osora hedatzeko.

Bereziki, garrantzitsua da ikastetxeari lotutako pertsona guztiek (irakasleak, ikasleak, langileak, familiak...) beren gain hartzea eta parte hartzea Erosketa Arduratsuko politiketan; izan ere, gizarte- eta ingurumen-irizpideak kontratatutako ondasun eta zerbitzuen erabilerrari ere aplikatu dakizkioke (kontsumoak murriztea, erabilera ona, hondakinen kudeaketa jasangarria, liburuak, materialak eta ekipoak berrerabiltzea eta txandakatzea, etab.).

4

ENPRESA HORNITZAILEAK HAUTATZEA



Erantzukizunaren osagai nagusietako bat enpresa hornitzaileak hautatzeko aukera da. Ikastetxeek hainbat ezaugarriengatik hauta ditzakete:

- ematen duten zerbitzuaz edo egiten duten produktuaz gain, ekonomia eta gizartea eraldatzeko xedea dutelako;
- jabetza kolektiboko eta autokudeaketako irizpideetan oinarritzen direlako edo langileen parte-hartzea sustatzen dutelako;
- balantze ekonomikoak gizarte- eta ingurumen-balantzeekin konbinatzen dituztelako;
- langabeak, gizartetik baztertua daudenak edo baztertuak izateko arriskuan daudenak, dibertsitate funtzionala dutenak... kontratatzea sustatzen dutelako;
- berdintasun-planak edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten beste neurri batzuk dituztelako;
- beren identitate edo orientazio sexualagatik pertsonak ez diskriminatzeko neurriak dituztelako;
- bidezko merkataritzan edo finantza etikoetan jarduteagatik;

- ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo ekologikoak sustatzen dituztelako, eta, bereziki, agroekologia;
- tokiko ingurunearekin duen konpromisoagatik eta komunitatea sustatzeko sareetan edo ekimenetan parte hartzen dutelako;
- erakunde sozial eta solidarioekin lankidetzapolitika garatzen dutelako edo langileen artean boluntarioritza soziala sustatzen dutelako;
- etab.

Ezaugarri horiek enpresen forma juridikoan, baldintza jakin batzuk betetzen dituztelako erregistro publikoetara atxikitzean, sareetako kide izatean edo enpresa-eredu tradizionalak eraldatu nahi dituzten ekimenetara atxikitzean aurki daitezke. Baliteke baldintza horiek beti ez bermatzea enpresa jakin baten erabateko koherentzia; beraz, komenigarria izan daiteke irizpide hori beste gizarte- eta ingurumen-irizpide batzuekin konbinatzea (5. kapitulua).

Ezaugarri sozial eta jasagarriak dituzten 14 enpresa mota

Enpresaren eta enpresa-sareen eredu batzuk aurkezten ditugu, gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren arloetan aurreratuagotzat jotzen direnak –batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago– (informazio xehatua 1. eranskinean).

Batzuk figura juridiko arautuak dituzten enpresak dira; beste batzuk, berriz, enpresa-eredu tradizionalak eraldatu nahi dituzten sareen parte dira, eta erreferentziatzat dituzten gizarte- eta ingurumen-adierazleak atxikitzeko, ebaluatzeko eta komunikatzeko mekanismo propioak dituzte; eta, azkenik, badira beste batzuk zehaztugabeagoak direnak.

Ez da zerrenda zehatza, eta ez dute bermatzen enpresa bakoitzaren erabateko eta kudeaketa-esparru guztietako koherentzia, baina lagungarria izan daiteke enpresa hornitzaileak hautatzeko Erosketa Arduratsuko politika batean:

1. Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak.
2. Ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak.
3. Enpresa kooperatiboak.
4. Laneratzeko enpresak.
5. Enplegu-zentro bereziak.
6. Lan-sozietateak eta partaidetzapeko enpresak.
7. Nekazaritza ekologikoa ekoiztea eta kontsumitzea.
8. Ondasun komunaren ekonomiako enpresak.
9. Balantze hirukoitzeko enpresak.
10. Elkartasunezko ekonomiako enpresak.
11. Irabazi asmorik gabeko erakundeak.
12. Tokiko enpresak eta denda txikiak.
13. Gizarte-enpresak.
14. Enpresa arduratsuak.

Gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak hainbat ziurtagiriren eta etiketen bidez ere frogatu daitezke (2. eranskina). Aurkezten dituzten baldintzek (egiaztagarritasuna, hirugarrenen parte-hartzea, egiaztapena, komunikazio publikoa...) bermatu egin dezakete enpresaren portaera arduratsua erakundearen barruko edo kanpoko eremu jakin batzuetan, bai eta produktu edo zerbitzuen ezaugarri sozial eta ekologikoak ere.

Ziurtagiri alternatiboak: auditoria sozialak eta partaidetza-sistemak

Azken hamarkadetan, ziurtapen-sistema alternatibo batzuk sortu dira. Ekoizpen ekologikoko, bidezko merkataritzako edo ekonomia sozial eta solidarioko sareek sustatutako ekimenak dira. Oro har, sistema horien egiaztagarritasuna talde edo pertsona ekoizle eta kontsumitzaileen garapenean parte hartzearen, kide diren sareek eskaintzen duten bermearen, komunikazio publikoaren edo aintzatespen sozialaren araberakoa izaten da.

Adibidez, REAS Sareen Sareak eta, bereziki, REAS Euskadik sustatutako auditoria eta balantze sozialetan¹⁰. Tresna propioa da, eta adierazle kuantitatibo eta kualitatibo bidez Ekonomia Solidarioaren Gutuneko printzipioen¹¹ betetze-maila ebaluatzen du. Sare osoaren emaitzen urteko memoria argitaratzen da, eta zigilu bat ematen zaie baldintza jakin batzuk betetzen dituzten eta banakako memoria jendaurrean jakinarazten duten enpresei¹². Hori betetzea ezinbestekoa da sustatzen duen sareko eta merkatu sozialeko kide izateko¹³.

Bestalde, Partaidetzako Berme Sistemak (PBS) edo Partaidetzako Ziurtagirien Sistemak (PZS) kanpoko aholkularitzek kontrolatutako kostu ekonomiko handiko etiketa handien ordeko ziurtapen-prozedurak dira. Berezi produktu ekologikoen esparruan sustatzen

Kasu batzuetan, ziurtagiri eta etiketen mugak baldintza horiek lortzeak dakarren kostu ekonomiko handiekin lotuta daude (ez daude beti gizarte-enpresa edo enpresa txiki askoren eskura), edo ziurtagiri eta etiketen partzialtasunarekin (gehienak funtzionamenduaren edo ekoizpenaren eta merkaturatzearen alderdi zehatzei buruzkoak dira). Hala ere, erregistroekin eta forma juridikoekin gertatzen den bezala, tresna erabilgarriak dira Erosketa Arduratsuko politiketarako.

dira, eta eraikuntza kolektiboko prozesuen bidez garatzen dira. Bertan, talde eta pertsona ekoizleek eta kontsumitzaileek modu erabakigarrian parte hartzen dute.

Latinoamerikako eta, neurri txikiagoan, Europako agroekologia-sareetan ezarritako sistemak dira. Adibide gisa, Comparte Sareak sustatutako Partaidetzako Berme Sistema aipatu behar da¹⁴. Prozesu horren helburua da nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuen kalitate agroekologikoa bermatzea, eta merkaturatze-zirkuitu laburrak eraikitze asmoz antolatutako erakunde ekoizleek eta kontsumitzaileek parte hartzen dute. Haren egitura nukleo komunitarioetan oinarritzen da. Nukleo horiek pertsona eta familia ekoizleak biltzen dituzte, eta, barne-kontrola eta jarraipeneko prozesu baten bidez ekoizpen agroekologikoen zigilu bereizgarria eskuratzen dute.

Agroekologiaren sektorean garatutako sistemez gain, beste esparru batzuetara ere hedatu da, hala nola partaidetzako genero-auditoretzetara, partaidetzako gizarte-ziurtagirietara eta abarretara, eta, batzuetan, erakunde publikoen eta nazioarteko erakundeen aintzatespena eta babesa izan du.

¹⁰ <https://reas.red> eta <https://reaseuskadi.eus>

¹¹ <https://bit.ly/CartaPrincipiosRdR>

¹² <https://bit.ly/ASenRdR> eta <https://bit.ly/AudSoREASEUS>

¹³ <https://merkatusoziala.eus> eta <https://mercadosocial.net>

¹⁴ Comparte Sarea ordeko aukera ekonomikoak kudeatzeko ikaskuntza- eta ekintza-komunitate bat da, eta Latinoamerikako 11 herrialdetan dago: <https://bit.ly/RedComparteAL>

Azkenik, aipatu behar da badaudela beste tresna batzuk enpresen gizarte- eta ingurumen-konpromisoaren bestelako ezaugarri batzuk erakusten dituztenak. Adibidez, *jasangarritasun-memoriak* aukera ematen diete enpresei beren interes-talde nagusiei konpromiso horren berri emateko. Enpresak bere jarduera ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan jasangarritasunaren arloan gauzatutako politikak eta ekintzak zehatz-mehatz erakusten dituen dokumentua da. Mota horretako memoriaren estandarrik ezagunena Global Reporting Initiative (GRI) da, enpresen hainbat tipologia eta tamainatarako balio baitu¹⁵.

Aipatzekoak dira, halaber, enpresen *jokabide-kodeak*. Dokumentu horrek erakundearen jarduteko modua arautzeko balio du eta prozedura etikoak biltzen ditu: langileen lan-eskubideak eta betebeharrak, interes-taldeekiko harremanak (enpresa hornitzaileak, pertsona eta talde kontsumitzaileak, sindikatuak, erakunde publikoak eta beste gizarte-eragile batzuk), lan-arloan, zerga-arloan, gizarte-arloan edo ingurumen-arloan enpresak dituen betebeharrak betetzea, debekatutako jardunbideak eta ustelkeria eta eroskeria prebenitzen dutenak, hornidura-kateen eta produktuen bizi-zikloen jarraipena eta kontrola, eta abar.



¹⁵ <https://www.globalreporting.org>

Enpresa hornitzaileak hautatzeko iturriak

Tresna batzuek informazio baliotsua eskain dezakete, Erosketa Arduratsurako irizpideak hautatzeko, eta baita ikastetxeetako Erosketa Arduratsua egitean enpresa hornitzaileak hautatzeko ere. Mugak dituzten arren (izen onaren bilakaerak eta merkataritza-bilakaerak, batzuetan, partzialtasuna, hirugarrenetikiko mendekotasuna, etab. dakartzate), Erosketa Arduratsurako baliagarriak diren hainbat dokumentu-iturri daude, eta ikastetxeek horietara jo dezakete edo haiei buruzko informazioa eska diezaiekete hornitzaile izan daitezkeen enpresei (3. eranskina):

- Gizartearekiko eta ingurumenarekiko konpromiso handiagoa duten enpresa-sareetako kide izatea.
- Ekonomia sozialeko edo ezaugarri jakin batzuk dituzten enpresetako erregistro publikoetan erregistratzea.
- Enpresaren jarduna gizarte- eta ingurumen-gaietan ebaluatzen duten tresnak erabiliz lortutako ziguiluak (ekonomia sozial eta solidarioaren auditoria sozialak, Partaidetzazko Berme Sistemak, balantze hirukoitza, ondasun komunaren ekonomia, etab.).
- Gizarte- eta ingurumen-konpromisoa sustatzen duten ekimen eta plataformetara atxikitzea.
- Enpresa-kudeaketako prozesu zehatzen ziurtagiriak (laneko segurtasuna eta osasuna, aukeraberdintasuna, ingurumen-kudeaketa, etab.).
- Produktu eta zerbitzuen gizarte- eta ingurumen-etiketak.
- Jasangarritasun-memoriak.
- Enpresen jokabide-kodeak.

5

EROSKETA ARDURATSUA EGITEKO GIZARTE- ETA INGURUMEN- IRIZPIDEAK

Produktuak eta zerbitzuak erosterakoan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea, kontratazio-politikek haien ezaugarri teknikoei eta prezioari buruzko baldintzez gain beste kontu batzuk ere hartu behar baitituzte kontuan. Are gehiago, kontuan hartu behar da produktu eta zerbitzu horien kalitateak zerikusi zuzena duela produktu eta zerbitzu horiek erosteak eta kontsumitzeak gizarteari eta planetari gizarte- eta ingurumen-alderdietan dakartzkien onurekin edo kalteekin. Eta erosteko unean ez ezik, produktu baten sorreratik bizitza baliagarriaren amaieraraino.

“Distira guztiak ez dira urre” (hornidura-kateei buruz)

Horniduraz arduratzen den kate baten jarraipena eta kontrola egitean, kate-maila bakoitzean gizarte- eta ingurumen-baldintza onenak bermatu behar dira: jatorria eta erabilitako lehengaiak, ekoizpen-prozesuaren ezaugarriak, merkaturatzearen inguruabarrak eta bizi-zikloaren propietateak (kontsumoa, baztertzea, birziklatzea edo berrerabilitzea). Kontuan hartzen da, beraz, kate osoaren trazabilitatea.

Gaur egun, hornidura-kateek (batez ere kontsumo masiboko produktu jakin batzuetan) merkataritza eta kontsumo globalaren ezaugarri kritikoenak biltzen dituzte: baliabideak murriztea, herrien edo biztanleriaren sektoreen subiranotasun kultural, politiko eta ekonomikoari erasotzea, helburu komertzialak lortzeko gatazka armatuak baliatzea, lurraren eta komunitateen defendatzaile diren pertsonen eta taldeen giza eskubideei erasotzea, gizarte- eta lan-eskubideak urratzea, CO2 isuriak, baso-soiltzea, biodibertsitatea galtzea, zaharkitze programatua, hondakin arriskutsuen kudeaketa ez-eraginkorra eta arriskutsua...

Hala ere, askotan ez da erraza kate-maila horiek guztiak kontrolatzea, kateak konplexuak direlako, gardentasunik ez dagoelako edo erregulaziorik eta estandar zorrotzik ez dagoelako. Nolanahi ere, gero eta hedatuago dauden gizarte- eta ingurumen-ziurtagiriek eta -etiketek kate horiei buruzko informazioa eman dezakete, bai eta enpresa hornitzaileen beste erregistro eta memoria batzuk ere. Enpresa hornitzaileei, gainera, gai honetan lotesleak diren eta erosketa-kontratu bat gauzatzeko betebeharren parte diren betekizun jakin batzuk eska dakizkieke.

Erosketa Arduratsuko politikak ezartzean hornidura-katea kontuan hartzea oso garrantzitsua da, eta horixe eskatzen dute GGKEek, gizarte-mugimenduek eta nazioarteko erakundeek, tokiko harreman ekonomikoetan eta harreman globaletan justiziarekiko eta giza eta ingurumen-eskubideekiko errespetua bermatzea eskatzen baitute.

Prezioak, askotan, lotura dute hornidura-kate horiekin ere, batez ere ekoizpenaren eta merkaturatzearen gizarte-, lan- eta ingurumen-baldintzekin.

Argi dago kostu ekonomikoa elementu garrantzitsua dela produktu edo zerbitzu bat erosteko orduan, batez ere finantzaketa-iturriak eta aurrekontuak mugatuak direnean. Erantzukizuna gastuaren kontrolarekin eta aurrekontu-eraginkortasunarekin lotuta dago, baina baita prezioak zer baldintzatan ezarri diren aintzat hartzearekin ere.

“Gauza merkea, luzera garesti” (bidezko eta bidegabeko prezioei buruz)

Egungo sistema ekonomikoak harreman arbitrario eta interesatua ezartzen du produktu eta zerbitzu baten prezioaren (produktua lortzeko dirua), balioaren (pertzepzio eta onura soziala) eta kostuaren (ekoizteko eta banatzeko erabili den dirua) artean. Adibidez, balio handiko zerbitzu batzuek (zainketak) kostu txikia dute (emakume zaintzaileen soldatak), eta horien prezioa kanpoko faktore erabakigarrien arabera izan daiteke (esku-hartze publikoa, ezkutuko merkatu bat egotea edo sektoreko inbertsio-funts baten estrategia komertziala).

Produktu askoren prezioan, halaber, ekoizpen politika deslokalizatuak eta merkaturatze bidegabeak esku hartzen dute, eta horien benetako gizarte- eta ingurumen-kostuak kanpora ateratzen dira. Balio handia ematen zaio, halaber, produktu jakin batzuk neurritz kanpo kontsumitzeari (jantziak, adibidez), ondorioak alde batera utzita. Edo banaketa-kate handiek bakarrik jasan ditzaketen prezio baxuak ezartzen dira (elikadura-produktuetan, adibidez), eta horrek tokiko ekoizpena eta merkaturatze-kate laburrak garatzeko aukera mugatzen du.

Horregatik, beharrezkoa da Erosketa Arduratsuko politika batean bidezko prezioaren irizpidea sartzea, produktuaren edo zerbitzuaren kostu eta/edo gizarte- eta ingurumen-onura guztiak kontuan hartuta. Horretarako, irizpide ona da erosketa publikoaren arloan deskribatzen dena (5. kapitulua): “kalitate-prezio erlaziorik onena” (eta ez eskaintzarik merkeena), kalitatearen balorazioan, bere ezaugarri teknikoek, estetikoek edo erabilgarritasunekoz gain, produktuaren edo zerbitzuaren eta hornidura-katearen gizarte- eta ingurumen-ezaugarriak txertatuz.

Ikastetxeek gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak sar ditzakete zuzeneko erosketetan, pertsona edo enpresa azpikontratistak enkargatzen dizkieten erosketetan eta ikasleentzat eta haien familientzat preskriptore gisa jarduten dutenetan. Lehenengo kasuan, sustatzen dituzten kontratuen parte izango dira; azpikontratisten kasuan, alde aurreko baldintza gisa ezarriko dira, eta, azkenik, preskribatutako enpresa kasuan, txertatu izanaren arrazoia eta ematen duten onura justifikatu beharko dute.

Kontratu-betebeharrak eta lankidetzaren hitzarmenak

Komenigarria da gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea ikastetxeak eta enpresa hornitzaileak sinatu beharreko kontratuaren dokumentuan. Kontratu gauzatzeko aurreikusitako baldintzek eta betebeharrak ahalik eta zehatzenak izan beharko dute, eta, horretarako, adierazle eta deskribapen zehatzak erabiliko dira; gainera, betearazpena justifikatzeko modua zehaztuko da (ziurtagiriak, etiketak, enpresa hornitzaileen fakturak, dokumentuak, etab.). Azken batean, kontratuaren objektuarekin eta garapenarekin eta kontratatutako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriekin lotutako gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak argi eta garbi jasotzea da kontua.

Baina enpresa hornitzaileekin (edo horiek biltzen dituzten sare eta erakundeekin) ezar daitezkeen harremanak bi alderdiek hitzarmenak sinatzean ere isla daitezke, kontratu batean biltzeaz gain, elkarlanerako eta elkarrekiko onurarako espazio batean.

Pentsa dezagun, adibidez, ikastetxe talde baten eta ekonomia sozial eta solidarioko sare baten arteko lankidetzan. Sare horrek, kontsumorako zerbitzu edo produktu jakin batzuk baldintza onuragarrietan eskatzeaz gain, aukera ematen du ikastetxeak berak kontsumo arduratsuaren erreferente bihurtzeko daitezkeen ikasleentzat, familientzat, langileentzat, lurraldeko gizarte- eta auzo-ehunarentzat (hezkuntza-jarduerekin bidez, azokak antolatzeko lekuak lagaz, gizartea sentsibilizatzeko ekimenen bidez, etab.). Edo energia berriztagarriko irabazi-asmorik gabeko kooperatiba baten eta ikastetxe baten edo batzuen lankidetzan autokontsumoko instalazioak ezartzeko; instalazio horien soberakin energetikoa sare orokorrera isuriko da.

Agroekologiako, bidezko merkataritzako, finantza etikoetako, energia berriztagarrietako, laneratzeko... sareek eta erakundeek ikastetxeekin lankidetzan aritzeko aukera baliotsuak izan ditzakete, elkarrekiko onura sustatuz, bai ekonomikoa, bai soziala, bai ingurumenekoa.

Jarraian, zerbitzuak kontratatzeke eta produktuak erosteko prozesuetan sar daitezkeen gizarte- eta ingurumen-irizpideen zerrenda orokorra eskaintzen dugu. Irizpide horiek ez dituzte beste batzuk baztertzeko, osatu egiten dituzte, Erosketa Arduratsuaren helburua irizpide ahalik eta gehien modu orekatuan txertatzea baita, bai erosketan bertan, bai hornidura-kate osoan. Beraz, kontuan hartu behar dira bai kontratua zuzenean gauzatzen denean, bai egiten diren azpikontratazio eta erosketa guztietan.

Hala ere, begi-bistakoa da ezin izango dela beti kate-maila guztietan koherentzia ziurtatzeko nahikoa informazio izan, edo, jarduera-sektoreen edo produktu- eta zerbitzu-moten arabera, egokienak eta esanguratsuenak diren irizpideak hautatu behar direla, hau da, inpaktu handiena dutenak.

Erosketa arduratsua egiteko 10 gizarte- eta ingurumen-irizpide

1. Kalitatezko enplegua eta lan-eskubideak.
2. Genero-ekitate.
3. Gizarte- eta lan-inklusioko.
4. Lurraldearekiko eta tokiko komunitatearekiko konpromisoa.
5. Gizarte-ekonomia eta eraldaketa ekonomikoa sustatzea.
6. Hornikuntza-katearen gardentasuna eta merkaturatzea eta bidezko prezioak.
7. Ingurumen-politika jasangarria.
8. Emisio kutsatzaileen murrizketa eta energia-eraginkortasuna.
9. Hondakinen kudeaketa jasangarria.
10. Merkaturatzeko zirkuitu laburrak.

Irizpidea

Edukiak

1. Kalitatezko enplegua eta lan-eskubideak

- Indarrean dagoen lan-araudia, laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurriak eta hitzarmen kolektiboetan (sektorialetan edo propioetan) aurreikusitakoa betetzea.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak errespetatzea, hornidura-kate osoa kontuan hartuta; horretarako, giza eta lan-eskubideak errespetatuko dira, haurren lana edo bortxazko lana debekatuko da edo edozein arrazoiengatiko diskriminazioa debekatuko da eta langileek antolatze eta sindikatzeko duten eskubidea bermatuko da.
- Legeak ezarritakoez gain beste hobekuntza-neurri batzuk sustatzea: kontratazio mugagabea, enpleguaren kalitatea eta lan-baldintzak hobetzea, norberaren bizitza eta lana bateragarri egitea sustatzea, lanaldia murriztea, prestakuntza, etab.
- Langileek enpresaren kudeaketa-prozesuetan duten parte-hartzea aintzatestea eta sustatzea.

2. Genero-ekitatea

- Diskriminaziorik ezaren arloko araudia betetzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak ezartzea.
- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen duten politikak bultzatzea, enplegua lortzean, lan- eta soldata-baldintzetan, lan-jardunean eta lan-ibilbidean, erantzukizuneko lanpostuak lortzean...
- Indarkeria matxistei eta sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloak eta prozedurak egitea edo identitate askearekin eta genero-adierazpenarekin eta sexu-orientazioarekin lotutako eskubideen edozein urraketaen aurkako protokoloak eta prozedurak garatzea.
- Diskriminazio positiboko politikak bultzatzea emakumeen kontratazioan, batez ere ordezkari txikia duten jarduera-sektoreetan.
- LGTBQ+ pertsonak baztertuko ez dituzten hautaketa-prozesu ez-diskriminatzaileak, asko lan-merkatu arruntetik kanpo baitaude.
- Berdintasuna, denboraren erabilera-aldaketa, profil etnikoagatik, identitateagatik eta sexu-orientazioagatik pertsonak ez diskriminatzea... sustatzen duten enpresen eta erakundeen sareetan parte hartzea.

3. Gizarte- eta lan-inklusioa

- Irisgarritasun unibertsaleko politikak eta prozedurak garatzea: espazioen, zerbitzuen, garraio-bideen, prozesuen, produktuen eta tresnen ulergarritasun- eta erabilgarritasun-baldintzak, bai eta pertsona guztiek segurtasunez eta erosotasunez, ahalik eta modu autonomoenean eta naturalenean, erabili eta gozatu ahal izateko mekanismoak ere.
- Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea: gizarte-bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, LGTBQ+ izaeragatik diskriminatuak, iraupen luzeko langabeak, gutxiengo etnikoak, 50 urtetik gorakoak, etab.
- Enplegua sustatzeko lankidetzak-hitzarmenak garatzea prestakuntzan eta gizarte- eta lan-inklusioan diharduten gizarte-erakundeekin.
- Laneratze enprekin, enplegu-zentro bereziekin edo ekonomia sozial eta solidarioko beste enpresa batzuekin zerbitzuak azpikontratatzeko, laneratzea sustatzeko.

Irizpidea

Edukiak

4. Lurraldearekiko eta tokiko komunitatearekiko konpromisoa

- Hornidura-kateari lotutako prozesu guztiak, ahal den heinean, tokiko lurraldean kokatzea.
- Tokiko baliabideak lehenestea, bai eta tokiko enpresak azpikontratatzeko ere, batez ere gizarte-kohesioa eta lurraldearen garapen endogenoa sustatzen dutenak.
- Zerga-baldintzak betetzea eta tokiko araudiekiko sozietate-erantzukizun guztiak onartzea.
- Tokiko garapena eta gizarte-kohesioa sustatzen duten sare eta ekimenetan parte hartzea.
- Esparru ekonomiko eta sozialetan presentzia txikiagoa duten hizkuntzen erabilerarekiko konpromisoa (euskara, esaterako).
- Kulturaren, prestakuntzaren eta ikerketaren garapena sustatzen laguntzea.
- Beste eragile eta gizarte-erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, lurraldearen eta haien komunitateen hobekuntza bultzatzeko, batez ere desabantaila sozial eta ekonomikoan daudenena.
- Hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzak-hitzarmenak eta -ekimenak garatzea.
- Deslokalizatutako prozesuen kasuan, batez ere munduko hegoaldeko herrietan, giza eskubideak, eskubide sozialak eta lan-eskubideak sustatzeko politikak garatzea, tokiko ohiturak eta kulturak errespetatzea eta komunitatearen garapena bultzatzeko konpromisoa hartzea.

5. Ekonomia soziala eta eraldaketa ekonomikoa sustatzea

- Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako jardunbide ekonomiko eta enpresarialak garatzea.
- Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzea, hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez.
- Ekonomiaren eraldaketa sustatzen duten sareetan parte hartzea, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunarekin, ekitatearekin, demokraziarekin eta inklusioarekin lotutako irizpideak oinarritzat hartuta.
- Tresna ekonomiko alternatiboak erabiltzea, hala nola finantza etikoak, mutualitateak eta zerbitzu-mankomunitateak edo merkatu sozialak.
- Ekonomia sozial eta solidarioaren enpresekin zerbitzuak azpikontratatzeko.

6. Hornikuntza-katearen gardentasuna eta merkaturatzea eta bidezko prezioak

- Hornidura-katearen gardentasuna sustatzea, trazabilitatearen ikerketa eta jakinarazpen publikoaren bidez: produktuen jatorria eta ezaugarriak, ekoizpen- eta merkaturatze-baldintzak, etab.
- Enpresa hornitzaileei eta/edo azpikontratatuari gardentasuna eta gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak betetzeko eskatzea.
- Bidezko soldaten ordainketa, konpromiso fiskalen betetze-maila, horniduren Erosketa Arduratsua, zerbitzuaren edo produktuaren salmenta-baldintzak, lortutako etekinak eta xedea erakusten dituzten memoria sozioekonomikoak egitea.
- Hornitzaile eta bezeroekiko harreman-politika bat ezartzea, ekitatean, errespetuan eta konfiantzan oinarrituta, epe luzerako.

- Nazioarteko harreman komertzialen kasuan, nazioarteko laneko konbentzio eta arauetara eta konbentzio eta arau sozial eta fiskaletara egokitutako estrategiak sustatzea, batez ere munduaren hegoaldeko herri eta komunitateekiko bidezko merkataritza sustatuz.
- Bidezko merkataritzako produktuak merkaturatzea eta kontsumitzea, eta interes-taldearen artean produktu horiek sustatzeko ekintzak.
- Hornidura-katean gizarte- eta ingurumen-ezaugarriak bermatzen dituzten etiketak eta ziurtagiriak erabiltzea.

7. Ingurumen-politika jasangarria¹⁶

- Ingurumen-arloko araudia zorrotz betetzea.
- Ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzea, dagozkien ziurtagiriek.
- Araudiek eskatutakoaz gain, ingurumenaren arloko beste hobekuntza batzuk sustatzea.
- Produktuetan ekoetiketak ezartzea.
- Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako produkzioa eta merkaturatzea kudeatzeko politikak garatzea.
- Jardueraren ingurumen-inpaktuen berri emango duten jasangarritasun-memoriak egitea.
- Ingurumen-arloko prestakuntza-planak garatzea.
- Ingurumenarekin konprometitutako enpresen sareetan eta ekimenetan parte hartzea.

8. Emisio kutsatzaileen murrizketa eta energia-eraginkortasuna

- Utilización de herramientas de control de las emisiones, como las calculadoras de huella de carbono.
- Impulso de programas de reducción del consumo de energía y de materias primas.
- Promoción de la eficiencia y la reducción del consumo de recursos hídricos.
- Utilización de energías renovables a través de instalaciones de autoconsumo y de cooperativas de generación, comercialización y consumo de energías renovables y promoción de la soberanía energética.
- Búsqueda de alternativas a la compra de materiales y herramientas como el alquiler o el préstamo.
- Uso de tecnologías bajas en carbono.
- Evitar la compra de productos y materiales tóxicos o contaminantes.
- Promoción del transporte público y sostenible.
- Impulso del uso de combustibles alternativos.
- Utilización de vehículos de motor no contaminantes o de tracción eléctrica.
- Exigencia de medidas de control de emisiones a empresas proveedoras o subcontratadas.

¹⁶ Ingurumen-baldintza hauetarako eta hurrengoetarako, IHOBEren erosketa berderako irizpideen gida kontsultatzea gomendatzen da: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>. Kontratazio publikorako gida den arren, ingurumen-baldintzak produktu-zerrenda luze batean sartzeko gida oso bat da, eta eremu pribatuan ere erabil daiteke erreferentziatzat. Enpresentzat, gainera, informazio garrantzitsua eskaintzen du karbono-aztarna neurtzeko tresnei buruz, klima-aldaketara egokitzeko planak egiteari buruz edo ekoetiketei buruz: <https://www.ihobe.eus/enpresak>

Irizpidea

Edukiak

9. Hondakinen kudeaketa jasangarria

- Hondakinak kudeatzeko plan bat egitea, murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea oinarritzat hartuta.
- Hondakinen sorrera prebenitzeko eta hondakinak (enbalajeak barne) murrizteko neurriak garatzea, baita ontzi berrerabilgarriak eta itzulgarriak erabiltzea murrizteko neurriak ere.
- Produktuen edo horniduren bizi-zikloa aztertzeke edo ingurumen-inpaktua ebaluatzeke tresnak erabiltzea.
- Produktu birziklatuak edo bigarren aukerakoak erostea edo hondakinak eta emisioak sortzea saihestu edo murrizten dutenak; gainera, ondoren konpondu eta birziklatzeke aukera emango dute.

10. Merkaturatzeko zirkuitu laburrak

- Hurbileko produktuak eta zerbitzuak erostea, tokiko jarduera ekonomikoa sustatzeko eta indartzeko, energia-gastua eta gas kutsagarrien emisioa murrizteke.
- Tokiko nekazaritzatik eta nekazaritza ekologikotik datozen produktu freskoen eta sasoiko produktuen kontsumoa.
- Bitartekaritza gutxirekin edo bitartekaritza bat ere gabe merkaturatutako produktuen kontsumoa, produkzioaren eta kontsumoaren arteko harreman zuzena sustatzeko.
- Merkatu sozialen garapena bultzatzea, bai eta tokiko enpresen eta saltokien sareena ere.

Erosketa arduratsurako gizarte- eta ingurumen-irizpideak hautatzeko adibideak, zerbitzu, produktu eta hornidura motaren arabera

Beti aplikatu daitezke enpresak hautatzeko irizpideak, gizarte- eta ingurumen-erantzukizun handieneko ezaugarrien arabera (4. kapitulua eta 1. eranskina).



Badira zerbitzu, produktu edo hornidura guztiei aplikatu dakizkiekeen zeharkako irizpide batzuk, hala nola gai hauei buruzkoak: lan-baldintzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, enplegu inklusiboa, diskriminaziorik eza, ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak, merkaturatzeko zirkuitu laburrak, gizarte-erakundeekiko lankidetzeta...


Aurkezten diren adibideez gain, Erosketa Arduratsua egiteko beste gizarte- eta ingurumen-irizpide batzuk ere hautatu eta aplikatu daitezke.

Produktu eta zerbitzuak

Eraikinen obrak, konponketa eta kontserbazioa

Irizpideak

- Arkitektura jasangarria.
- Ekodiseinua.
- Energia-eraginkortasunerako neurriak.



Hornidurak (elektrizitatea, ura, gasa eta erregaia)

- Energia-eraginkortasunerako eta kontsumoa murrizteko neurriak.
- Energiaren jatorriaren bermearren egiaztagiria eta elektrizitatearen etiketa.
- Autokontsumorako instalazioak (eguzki-plakak).
- Energia berriztagarriak merkaturatzeko eta kontsumitzeko irabazi-asmorik gabeko kooperatibak.
- Gasaren ordeztasun, aerotermiak edo geotermiak sortutako elektrizitatea erabiltzea.

Aseguruak

- Aseguru etiko eta solidarioak (EthSI zigilua).

Banku- eta finantza-zerbitzuak

- Banku etikoa.

Jantokia

- Nekazaritza eta elikadura ekologikoa.
- Hurbileko produktuak.
- Enbalajeak, baxera, mahai-tresnak eta ahozapi jasangarriak.
- Botilaratu gabeko ura.
- Hondakinen aprobetxamendu eta kudeaketa jasangarria.




Garraioa (eskolakoa eta bestelakoak)

- Mugikortasun jasangarria (ibilbide laburrak, garraio publikoa, ibilgailu elektrikoak, *carsharing* elektronikoa...).

Altzariak

- Zur ziurtatuak.
- Naturarekin lagunkoia diren materialak.
- Material birziklatuak eta ekodiseinua.
- Tokiko ekoizpena.





Produktu eta zerbitzuak

Irizpideak

Ekipo informatikoak

- Ingurumen-ziurtagiriak (energia-gastua, erabilera, mantentze-lanak eta birziklapen fisikoa...).
- Ziurtagiri sozialak (gatazkarik gabeko teknologiak, bidezko hornidura-katea...).
- Software librea.

Laborategietarako eta lantegietarako ekipoak eta produktuak

- Produktuaren gizarte- eta ingurumen-ziurtagiriak.
- Energia-eraginkortasuna.
- Naturarekin lagunkoiak diren materialak.
- Kutsatzaileak edo toxikoak ez diren produktuak.
- Ekodiseinua eta birziklapena.



Garbiketa eta mantentze-lanak

- Langabeak eta/edo gizarte-bazterkeria jasaten dutenak edo jasateko arriskuan daudenak laneratzea.
- Material eta hornidura ekologikoak, eta ez toxikoak eta kutsatzaileak direnak.

Liburuak eta material didaktikoa

- Berrerabiltzea.
- Material ekologikoak eta paper birziklatua.
- Tokiko ekoizpena.

Fotokopiagailuak eta inprimagailuak

- Ingurumen- eta gizarte-ziurtagiriak dituzten ekipamenduak.
- Paper-kontsumoa murrizteko neurriak.
- Paper birziklatua.



Arropa (kirola egitekoa eta lanekoa)

- Produktuaren gizarte- eta ingurumen-ziurtagiriak.
- Bidezko hornidura-kateak.
- Tokiko ekoizpena.

Eskolako material suntsikorra eta bulegokoa

- Berrerabiltzea.
- Material ekologikoak eta paper birziklatua.
- Tokiko ekoizpena.



Publizitatea eta propaganda

- Paperaren erabilera murriztea.
- Material ekologikoak eta paper birziklatua.
- Tokiko ekoizpena.



Posta eta mezularitza

- Mugikortasun jasangarria.

Vending zerbitzua

- Bertako produktuak.
- Produktu osasungarriak.
- Bidezko merkataritzako produktuak.

6

EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA HEZKUNTZA- SEKTOREAN

Azken urteotan, erosketa publiko arduratsu eta jasangarriekin lotutako sentsibilitate sozial eta instituzionala nabarmen handitu da. Hala erakusten dute hainbat herrialdetako eta nazioarteko erakundeetako legeriek, estrategiek, programek eta arlo horretako tresnen ekoizpenak.

Hala eta guztiz ere, administrazio publikoek praktikoki nola aplikatzen duten kontuan hartuz gero, aplikazioa legegintzaren arloan egin den aurrerapena baino mugatuagoa da oraindik ere. Horrela, bada, Europako, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko arau-esparruetan aurrerapen handiak egin dira erosketa publiko orok izan beharko lituzkeen gizarte- eta ingurumen-irizpideei dagokienez.

Sektore publikoko kontratuen legearen aplikazioa hezkuntzaren eremuan

Ikastetxe publikoetako obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratu asko modu zentralizatuan egiten dira autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailetatik edo zerbitzu jakin batzuek arduratzen diren udal-erakundeetatik. Hori dela eta, beharrezkoa da administrazioei eskatzea aplikatu ditzatela *Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak*¹⁷ adierazten dituen gizarte- eta ingurumen-irizpideak. Irizpide horiek autonomia-erkidegoetako eta tokiko beste araudi batzuetan ere zehaztu eta indartzen dira.

Bestalde, eta eredu gisa duen balioagatik, araudi horrek pista baliagarri batzuk ematen dizkie ikastetxe guztiei (eta edozein erakunderi), erosketen kudeaketan gizarte- eta ingurumen-irizpideak nola txertatu jakiteko, errazago, eta kontratu publikoek bete behar dituzten baldintza eta murrizketarik gabe.

Sektore publikoko kontratazioa arautzen duen eta arlo horretako Europako arauak transkribatzen dituen legeak argi eta garbi ezartzen du kontratuetan gizarte- eta/edo ingurumen-arloko kontsiderazioak sartzeko betebeharra. Kontsiderazio horiek esleipen-irizpideetan (kalitate-prezio erlaziorik onena ebaluatzeko irizpide kualitatiboetan) edo kontratua gauzatzeko baldintza berezietan sartu ahal izango dira, betiere kontratuaren objektuarekin lotuta (hitzaurrea, V. kapitulua).

Izan ere, 1. artikuluan (xedea eta zertarakoa) hauxe ezartzen du: “kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira (...), sinetsita haiek sartzeko kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran”. Artikulu horretan bertan honako hau gehitzen da: “enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da”; beraz, sektore ekonomiko horiei laguntzearen alde egiten da, beren konpromiso sozialagatik eta tokiko ingurunearekiko konpromisoagatik.

¹⁷ https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2017/11/09/pdfs/BOE-A-2017-12902-E.pdf Gaian sakontzeko: Lesmes Zabalegui, Santiago (2018): *Guía de compra pública responsable y del fomento de la contratación pública de entidades y empresas de la Economía Social*, CEPES, Madrid: <https://bit.ly/CPRenCEPES>

Kontratua esleitzeko irizpideei dagokienez (145. artikulua), adierazten da kalitate-prezio erlaziorik onenean oinarrituta ezarriko direla, eta ez, lehen bezala, eskaintza ekonomiko onuragarrienean oinarrituta. Zerrenda hori irizpide kualitatiboan arabera ebaluatuko da, eta irizpide horiek ingurumen-eta/edo gizarte-alderdiak barne hartu ahal izango dituzte.

Horrela, bada, irizpideen zerrenda bat aurkezten du adibide gisa, baina beste irizpide batzuk baztertu gabe, eta, ingurumenaren eremuan, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak erabiltzea, iturri berriztagarrietatik sortutako energia erabiltzea edo kontratua gauzatzeko eragin ditzakeen baliabide naturalak mantentzea edo hobetzea.

Ezaugarri sozialei dagokienez, honako hauek aipatzen dira, besteak beste: desgaitasuna duten eta/edo gizartean bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonak laneratzea, laneratzearen enpresekin eta enplegu-zentro bereziki azpikontratatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, emakumeen kontratazioa, bateragarri egiteko neurriak, gizarte- eta lan-baldintzen hobekuntza, enpleguaren egonkortasuna, kontratazio gehiago sortzea, lan-osasuneko prestakuntza eta babesa, irizpide etikoak eta gizarte-erantzukizuneko irizpideak, bidezko merkataritzako hornidurak, etab.

Kontratua **gauzatzeko baldintza bereziei** dagokienez (enpresa kontratistak kontratuaren garapenean dituen betebeharrak ezartzen dituzte), berariaz adierazten dira izaera sozial eta/edo ingurumenekoa duten kontratuak, eta baldintza-agirian ezaugarri horiek gauzatzeko gutxienez baldintza berezi bat ezartzeko betebeharra ere ezartzen da (202. artikulua).

Ingurumen-kontsiderazioetan esleipen-irizpideetan jasotakoak aurkezten dira, besteak beste, eta adibide gisa, honako hauek: uraren kudeaketa jasangarria, produktuen birziklapena eta ontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzea edo produktuak soltean entregatzea edo ekoizpen ekologikoa bultzatzea.

Gizarte-kontsiderazioak esleipen-irizpide gisa ezarritakoen antzekoak dira, baina Erosketa Arduratsurako garrantzi berezia duen beste bat barne hartzen du: “oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritako konbentzioak bete daitezela exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak”.

Hornidura-katea legearen hitzaurrean aipatzen da (V. kapitulua). Bertan adierazten denez, “giza eskubideekiko errespetuari eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako langileen eta ekoizle txikien eskubideekiko errespetuari bide emateko asmoz, aukera bat sartzen da bai adjudikazio-irizpideek, bai exekuziorako baldintza bereziek ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuko alderdi sozialak jaso ditzaten kasuan kasuko kontratuaren arabera egin beharreko obretan, horniduretan edo zerbitzuetan; eta, bereziki, eskatu ahalko da prozesu horrek bete ditzala bidezko merkataritzari eta garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpenak (2005/2245(INI)) 2. apartatuan ezartzen dituen bidezko merkataritzaren printzipioak”.

89. artikuluan (kaudimen teknikoa hornidura-kontratuetan) ezartzen denaren arabera, hornidura-



kateko kudeaketa-sistemak eta jarraipen-sistemak kontuan hartu behar dira, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko arauak betetzen direla bermatzen duten kudeaketa-sistemak barnean direla.

Erreserbatutako kontratuei dagokienez, laugarren xedapen gehigarriak adierazten du administrazio-maila guztietako organo eskudunek gutxieneko ehunekoak finkatu behar dituztela zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait lote adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzako eta laneratze-enpresentzako erreserbatzeko.


Erreserbatutako kontratu hori (edozein motatakoa eta/edo kopuru ekonomikoa izan daiteke), lege hau baino lehen ere arautua zegoen, erregulazio eta erregistro propioak dituzten enpresentzako, bai estatuan, bai autonomia-erkidegoan.

Lege honek aurrekoei gehitu die, berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian, gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako zenbait kontratu erakunde jakin batzuentzako uzteko aukera. Erakunde horiek hirugarren sektorearen eta ekonomia sozialaren ezaugarrien antzeko ezaugarriak dituzte, eta kontratuak ere eskaera baldintza bereziak ditu (hiru urteko gehieneko iraupena, aurreko hiru urteetan kontratu bera gauzatu ez izana, etab.).

Legeak, 127. artikuluan, **gizarte- eta ingurumen-etiketak** ere aipatzen ditu, eta halakotzat hartzen ditu “kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri”, bai eta baldintza jakin batzuk betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri ere (irizpide egiaztagarrietan oinarritutakoak, prozedura ireki eta gardenen bidez egindakoak, publikoki eskuragarriak, etab.).

Zehazki, hauxe adierazten du: “kontratazio-organoei, ezaugarri bereziak –ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak– dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, berariazko etiketa bat eskatu ahalko dute preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzako konbentzioak betetzea bermatzen dutenak”.

Kontratatzeko debekuei dagokienez, ohiko debekuez gain (zerga-betebeharrak egunean ez izatea, delituak egin izana, lan-zehapenak, konkurtso-egoera, etab.), bi inguruabar sozial gehitzen dira: desgaitasuna duten pertsonen contratazio-ehunekoak ez betetzea edo berdintasun-planik ez izatea (bi kasuetan, horixe eskatzen dute kasuan kasuko legeek).



7

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

Gizarte- eta ingurumen-konpromiso handiena duten enpresak

33

II. ERANSKINA

Gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna sustatzeko ziurtagiriak, etiketak eta ekimenak

38

III. ERANSKINA

Enpresa hornitzaileentzako galdetegia (eredua)

44

I. ERANSKINA

Gizarte- eta ingurumen-konpromiso handiena duten enpresak

1. Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak

Ekonomia solidarioaren edo ekonomia sozial eta solidarioaren sektorea ekonomia sozialaren ardatz komunitet sortutako sektorea da¹⁸, baina ez ditu enpresak eta erakundeak aintzat hartzen formula juridikoagatik (nahiz eta horien artean kooperatiboak ugariak izan), baizik eta Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunari atxikitzen zaizkiolako: ekitatea, lan duina, lankidetzeta, jasangarritasun ekologikoa, aberastasunaren banaketa justua eta ingurunearekiko konpromisoa¹⁹.

Enpresa horiek ekonomia eta gizartea eraldatzeko zeregina hartzen dute beren gain, eta bertan txertatzen dira, sareko lana bultzatzeaz gain, bereziki lankidetzeta sustatzeko, sektore ekonomiko estrategikoetan (finantzak, elikadura, etxebizitza, energia elektrikoa...) tresna komunak garatzeko, tresna komunak bultzatzeko (auditoria soziala, merkatu soziala...) edo gizarte-sentsibilizazioko eta eragin politikoko lana sustatzeko.

Ekonomia sozial eta solidarioko sareak:

- REAS Euskadi:
<https://reaseuskadi.eus>

¹⁸ Ekonomia soziala osatzen duten enpresen definizioa eta tipologia *Gizarte Ekonomiarik buruzko 5/2011 Legeak* arautzen ditu Espainiako Estatuan: <https://bit.ly/LeyEconomiaSocialEs>. Sektore osoa, eta sektorea osatzen duten familia guztiak, CEPESen (Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresarien Konfederazioa) biltzen dira: <https://www.cepes.es>

Horri dagokionez, adierazi behar da azken legegintzaldia 2023an amaitu zenean, Espainiako Parlamentuak *Ekonomia Soziala Bultzatzeko Lege Integralaren aurreproiektuaren* proposamenaren izapideak hasi zituela. Aurreproiektu horrek, ziurrenik (prozesuak hurrengo legegintzaldian jarraitzen badu), kooperatiben, laneratzeko enpresen eta 5/2011 Legearen beraren erregulazioarekin lotutako alderdi batzuk aldatuko ditu, bereziki erakundeen ekosistema propioa argitzerakoan.

¹⁹ <https://bit.ly/CartaPrincipiosRdR>

- REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sarea: <https://reas.red>
- Ekonomia Solidarioaren Ataria:
<https://www.economiasolidaria.org>
- RIPESS Gizarte-ekonomia solidarioa sustatzeko kontinentearteko sarea: <https://www.ripess.org>

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sare eta erakunde sektorialak:

- Goiener, Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba: <https://www.goiener.com>
- Unión Renovables, energia berriztagarrien kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatiben batasuna: <https://www.unionrenovables.coop>
- Fiare Banka Etikoa, finantza etikoen banku kooperatiboa: <https://www.fiarebancaetica.coop>
- Coop57, finantza-zerbitzuen kooperatiba:
<https://coop57.coop>
- Oikocredit, Hegoaldean eragina duen inbertsio-kooperatiba: <https://www.oikocredit.es>
- REFAS (Tokiko Finantza Alternatibo eta Solidarioen Sarea): <https://www.refas.org>
- CAES, Aseguramendu Etiko eta Solidariorako Lankidetzeta: <https://caes.coop>
- AERESS, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Suspertzaileen Espainiako Elkarte: <https://aeress.org>
- Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea:
<https://comerciojusto.org>
- Supermerkatu Kooperatiboen Sarea:
<https://supermercadoscooperativos.com>

- Erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiben sarea: <https://www.koobizitza.org>
- Estatuko erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben proiektuen sarea: <https://www.koobizitza.org>

2. Ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak

Euskal Herrian sortu berri den mugimendua da, ekonomia sozial eta solidarioaren ezaugarri komunak dituen. Kooperatibismoaren printzipio eta jardunbide eraldatzaileenak eta integralenak balioetsi nahi ditu, ekonomia sozialaren egitura handiak zaharkituta geratzeko arriskua baitago.

Enpresa-proiektuak arlo ekonomikoa gainditzen duten eta haien arteko lankidetzak sustatzen duten komunitateak hartzen dituzte. Ekintzaitza sustatzen dute oinarri kooperatibo eta eraldatzaileak kontuan hartuta, eta euskal lurraldean errotuta.

- Olatukoop, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sarea: <https://olatukoop.eus>

3. Enpresa kooperatiboak

Kooperatibismoa XIX. mendearen erdialdean Ingalaterran zegoen industria-eredu bidegabearen aurrean elkarri laguntzeko eta lankidetzan aritzeko ekimenetatik datorren mugimendua da. Gaur egun, eragin sozial eta ekonomiko handia duen nazioarteko mugimendua da, eta, herrialde eta autonomia-erkidegoetan erregulazio desberdinak izan arren, balio komunak dituzte.

Horrela, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (ACI, gaztelaniaz) honela definitzen du kooperatiba: “borondatez elkartu diren pertsonen elkarte autonomoa, beren beharrez eta asmo komunak asetzeko, arlo ekonomiko, sozial eta kulturalean, demokratikoki kudeaturiko eta jabetza komuneko enpresa baten bitartez”. Era berean, printzipio kooperatibo hauek partekatzen dituzte: borondatezko atxikipen irekia, kudeaketa demokratikoa, parte-

hartze ekonomikoa, autonomia eta independentzia, hezkuntzaren sustapena, prestakuntza eta informazioa, kooperatiben arteko lankidetzak eta komunitatearekiko interesa²⁹.

Erosketa Arduratsuen ikuspegitik, gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatiben figura espezifikoak nabarmendu behar dira, irabazi asmorik gabeko enpresa-egiturak baitira, gizarte-, ingurumen- edo interes publikoko helburuetara bideratuak.

- KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa: <https://konfekoop.coop>
- COCETA, Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa: <https://www.coceta.coop>
- Espainiako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak: <https://www.agro-alimentarias.coop>
- UNACC, Kreditu Kooperatiben Batasun Nazionala: <https://www.unacc.com>
- CONCOVI, Espainiako Etxebizitza Kooperatiben Konfederazioa: <https://concovi.org>
- UNCOE, Irakaskuntza Kooperatiben Espainiako Batasuna: <https://www.uecoe.es>
- HISPACOOP, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioa: <https://hispaceop.es>
- ACI, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa: <https://www.ica.coop>

4. Laneratzeko enpresak

Irabazi-asmorik gabeko enpresa-ekimenak dira, gizarte- eta lan-inklusioren espezializatutako erakunde sozial eta/edo publikoek sustatzen dituzte. Haien helburua da gizarte-bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden langabeei laguntzea eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzea. Komunitatean jarduera ekonomikoa sortzen duten ekoizpen-egiturak dira, tokiko garapenarekin eta gizarte-kohesioarekin konpromiso argia dutenak.

²⁹ ACI: Nortasun kooperatiboa, gure printzipioak eta balioak: <https://bit.ly/IdentidadCooperativaACI>

Laneratzeko enpresek legeria propioa dute estatuan eta autonomia-erkidegoan, bai eta sustapen-neurri jakin batzuk ere. Jarduera ekonomikoko hainbat sektoretan jarduten dute, eta uztartu egiten dituzte merkatuan egiten duten lana (gainerako enpresek bezala) eta laneratzeko beharra duten langileei merkatuan ematen dieten laguntza. Langile horiek beste langileen eskubide eta lan-baldintza berberak dituzte, eta gehienez ere hiru urtez egon daitezke enpresa horietan, eta, ondoren, lan-merkatu arruntera igarotzea sustatzen da.

- Gizatea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte: <https://www.gizatea.net>
- FAEDEI, Laneratzeko Enpresen Enpresa Elkartearen Federazioa: <https://faedei.org>
- ENSIE, European Network of social integration enterprises: <https://www.ensie.org>

5. Enplegu-zentro bereziak

Enpresa horien helburu nagusia da desgaitasuna duten pertsonen beren ezaugarri pertsonaletara egokitutako lan produktibo eta ordaindua ematea, haien gizarteratzea eta laneratzeko bultzatzeko.

Irabazi-asmoa duten enplegu-zentro bereziak edo irabazi-asmorik gabekoak daude, eta, azken kasu horretan, gizarte-ekimenekotzat hartzen dira. Edozein motatako erakunde pribatu eta/edo publikoek susta ditzakete, eta berriazko erregulazioa dute, eta baita sustapen-neurri jakin batzuk ere.

- EHLABE, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte: <https://www.ehlabe.org>
- FEACEM, Enplegu Zentro Berezien Elkartearen Espainiako Enpresarien Federazioa: <http://www.feacem.es>

6. Lan-sozietateak eta partaidetzapeko enpresak

Sozietate anonimoak edo mugatuak dira. Kapitalaren % 51, gutxienez, langileen jabetzakoa da, eta ezein pertsona edo erakunde bazkide ezin du haren herena baino gehiago ordezkatu. Enpresa horiek 70eko hamarkadatik aurrera sortu ziren Espainiako Estatuan, ekintzaitza kolektiboa eta krisialdian zeuden enpresen birmoldaketa sustatzeko.

Bestalde, eta lege arautzaile berean, langileen partaidetzapeko sozietateetat hartzen dira lehenengoetarako ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak, baldin eta langileak bazkide izatea sustatzen badute, bai eta bazkide horiek parte hartzeko moduak ere (bereziki, haien legezko ordezkariaren bidez), eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte. European, enpresen zuzendaritzan eta kapitalean langileen parte-hartzea eta sindikatuen eta beste ordezkari-figura batzuen parte-hartzea sustatzen duen korrontearen parte dira, baita ere.

- ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen eta enpresa partaidetuen enpresa-elkatea: <https://asle.es>
- LABORPAR, Espainiako Lan Sozietateen eta Partaidetuen Enpresaburuen Federazioa: <https://laborpar.es>

7. Nekazaritza ekologikoa ekoiztea eta kontsumitzea

Tokiko ekoizpena, merkaturatzeko zirkuitu laburrak eta produktu ekologikoen kontsumoa sustatzen duen mugimendua garatzen joan da, eta gero eta eragin handiagoa du. Elikadura-, nekazaritza- eta artzaintza-ekimenak eta -sistemak bultzatu nahi ditu, tokian ekoizten dutenek kudeatuta, eta, horrez gain, kontsumitzaileen parte-hartzea eta elikadura irizpide ekologikoen eta elikadura-subiranotasunaren arabera kontrolatzeko duten eskubidea sustatu nahi ditu.

Mugimendu horren barruan daude ziurtagiri ekologikoen kontseilu ofizialak, kontsumo-elkarte eta -taldeak, sindikatuak eta landa-langileen taldeak, erakunde ekologikak...

- EHKOLEktiboa, Euskal Herrian Agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserriar eta herritarren kolektiboa: <https://ehkolektiboa.eus>
- EKOLURRA, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua: <https://ekolurra.eus>
- SEAE, Nekazaritza Ekologikoaren eta Agroekologiaren Espainiako Elkarte: <https://agroecologia.net>

8. Ondasun komunaren ekonomiako enpresak

Ondasun komunaren ekonomiaren (OKE) nazioarteko mugimenduari lotutako edozein figura juridiko duten enpresak dira, 2011n Europan sortutako merkatu-ekonomia kooperatiboaren eredua. Eredua horren muina da enpresek, emaitza ekonomikoaz gain, giza duintasuna, elkartasuna eta justizia, ingurumenaren jasangarritasuna eta gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa errespetatzeko konpromisoa hartzen dutela.

Lau balio horiek enpresaren interes-taldeekin lotzen dira, ondasun komunari egiten dioten ekarpena neurtzeko adierazleak dituen matrize baten bidez, eta hura betetzen duten enpresek OKE etiketa bat jasotzen dute puntuazioekin.

- Ondasun Komunaren Ekonomiaren Espainiako Federazioa: <https://economidelbiencomun.org>
- Ondasun Komunaren Ekonomiaren Nazioarteko Federazioa: <https://www.ecogood.org>

9. Balantze hirukoitzeko enpresak

Enpresa horiek balantze hirukoitzean –ekonomikoa, ekologikoa eta soziala– oinarritutako eredua

partekatzen dute, eta enpresa-eredu tradizionala eraldatzen saiatzen dira, gizarte jasangarriagoa eta bidezkoagoa eraikitzen lagunduz.

Ekonomiari dagokionez, negozio errentagarriak sortzen dituzten enpresa oparoak bultzatzen dituzte, pertsonengan eta ingurunean eragin positiboa dutenak. Ingurumenari dagokionez, leheneratu egin nahi dute, ekonomiaren ikuspegi linealaren ordeztu beste ikuspegi zirkular bat jarritz, klima-aldaketaren eta planetaren mugen jakitun dena. Eta arlo sozialean, lan-legeriaz gain, enpresetan lan egiten duten pertsona guztien garapen pertsonal eta profesionala ere bultzatu nahi dute, baita bezero eta hornitzaile diren pertsona eta erakundeena ere. Horretarako, balantze hirukoitz hori neurtzeko tresna propioa dute.

- SANNAS, Balantze Hirukoitzaren aldeko Enpresen Elkarte: <https://www.sannas.eu>

10. Elkartasunezko ekonomiako enpresak

Fokolareen Mugimenduak sustatuta²¹ eta ekonomia zibila deiturikoaren proposamenekin lotuta, elkartasunean, doakotasunean eta elkarrekikotasunean oinarritutako enpresa- eta ekonomia-eredua bultzatzen du, sistema kapitalistan dagoen estilo nagusiaren ordeztu estiloa proposatuz eta garatuz.

Elkarteak eta poloak, inkubagailuak eta enpresa-parkeak, prestakuntza-programak eta abar dituzte munduko hainbat herrialdetan.

- Elkartasunezko Ekonomia: <https://www.edc-online.org>

11. Irabazi asmorik gabeko erakundeak

Aipatu behar da irabazi-asmorik gabeko elkarte eta fundazio batzuek parte hartu dutela hezkuntza-zerbitzuak, merkaturatze-zerbitzuak, aholkularitza-zerbitzuak eta abar ematearekin lotutako jarduera ekonomikoen garapenean.

²¹ <https://www.focolare.org>

Horren adibide dira, esaterako, bidezko merkataritzako erakunde asko, kontsumo ekologikokoak, finantza etikoak sustatzekoak, aisialdiko hezkuntzakoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzekoak, ingurumen-hezkuntzakoak, gizareratze-eta laneratze-programetakoak, eta abar, laguntza publikoek gain, truke ekonomikoa tarteko den jardueraren bat garatzen dutenak

12. Tokiko enpresa eta denda txikiak

Aipatzekoa da, halaber, Erosketa Arduratsuko politika batek eragina duela tokiko saltokietan eta enpresa txikietan. Horren bidez, komunitateko eta tokiko ekonomia-bilbeak indartzen dira, eta gizarte-kohesioa eta tokiko garapena sustatzen ditu.

13. Gizarte-enpresak

Gizarte-enpresaren kontzeptuari buruz eztabaida akademiko eta juridiko handia dago²². EBk ez du horri buruzko adierazpen argi eta zehatzik egin, baina herrialde batzuk hainbat modutan hasi dira balizko enpresa-modalitate hori arautzen.

Eztabaida horretan hiru jarrera aurki ditzakegu: gizarte-ekonomiaren esparruan araututako enpresa guztiak gizarte-enpresatzat hartzen dituenak; definizio hori lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzeko enpresentzako dela dioena (laneratze enpresak eta enplegu-zentro bereziak); eta, azkenik, enpresa-mota berriak arautzearen aldekoa, duten forma juridikoa kontuan hartu gabe, betiere beren jarduerak helburu edo ezaugarri sozialak baditu.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da enpresa batzuek beren buruari horrela deitzen diotela edo gizarte-enpresatzat hartzen direla komunikabideetan, eta ahalik eta irizpide objektiboenetan oinarrituta aztertu beharko direla.

14. Enpresa arduratsuak

Kasu honetan ere, ez da erraza *enpresa arduratsuak* kontzeptua zehaztasunez mugatzea. Kontzeptu hori duela hamarkada batzuk sortu zen enpresen gizarte-erantzukizuneko politiken bultzadarekin, eta, neurri handi batean, gaur egun jasangarritasun-politikek ordezkatu dute. Hala ere, badira oraindik enpresa edo korporazioaren erantzukizun sozialarekin lotutako erregistro edo zigilu batzuk, erakunde publiko batzuek eta erakunde pribatu batzuek mantentzen dituztenak²³.

Esparru horretan, nazioarteko erakundeek edo enpresa-talde handiek sustatutako enpresen erantzukizunarekin edo jasangarritasunarekin lotutako ekimen batzuk inskriba daitezke, baina ez dute beti gizarte zibileko erakundeen babesa, horien ustetan ekimenok apaindu egiten baitituzte beren jardunbide ekonomikoak, sozial eta ingurumeneko gisa aurkeztuta, eta adierazle mugatuak erabiltzen baitituzte. Nolanahi ere, beren erantzukizun-estandarrak dituzte.

- Nazio Batuen Munduko Itunaren Espainiako Sarea: <https://www.pactomundial.org>
- United Nations Global Compact: <https://unglobalcompact.org>
- B Corps Spain: <https://www.bcorpsspain.es>
- B Corps Global: <https://www.bcorporation.net>

²² Horri buruz, kontsultatu ikerketa sare honen webgunea: EMES-International Research Network on Social Enterprise, Social Entrepreneurship, Social and Solidarity Economy and Social Innovation: <https://emes.net>.

²³ Enpresaren Gizarte Erantzukizunarekin lotutako hainbat ekimen daude Espainiako Gobernuaren Gizarte Erantzukizunaren Atarian: <https://www.mites.gob.es/es/rse>

II. ERANSKINA

Gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren ziurtagiriak, etiketak eta sustapen-ekimenak

Ezinezkoa da gizarte- eta ingurumen-arloko ziurtagiri, egiaztagiri eta etiketa guztiak biltzea. Nazioarteko edo tokiko erakundeek sustatutako ehunka ekimen dira, enpresen portaerari edo produktuen ezaugarriei buruzkoak. Horien artean daude publikoki onartutako arauak, autoadierazpenak, auditoretzak, produktuen etiketak, etab.

Hori dela eta, enpresa, produktu eta zerbitzuen hautaketa gizarte- eta ingurumen-irizpideen arabera bideratzeko lagungarriak izan daitezkeen adibide batzuk eskaintzen dira, asko sakondu gabe eta bakoitza baloratzeko asmorik gabe. Erantzukizuna sustatzeko sare eta ekimenen egiaztagiri batzuk aurkezten dira, baita ziurtagiri eta bereizgarri sozialak eta ziurtagiri eta etiketa ekologikoak ere. Azkenik, gizarte zibileko erakundeek enpresa-portaera zaintzearekin lotutako hainbat baliabide identifikatzen dira.

Erantzukizuna sustatzeko sareen eta ekimenen egiaztagiriak	
REASen Auditoria Soziala	<p>Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioak betetzen direla eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareek bultzatutako merkatu sozialeko kide direla egiaztatzen du.</p> <ul style="list-style-type: none">• REAS Euskadiren Auditoria Soziala eta Merkatu Soziala: https://bit.ly/AudSoREASEUS eta https://merkatusoziala.eus• REAS Sareen Sarearen Auditoria Soziala eta Merkatu Soziala: https://bit.ly/ASenRdR eta https://mercadosocial.net
Ondasun Komunaren Balantzea	<p>Izen bereko mugimendu ekonomikoaren Ondasun Komunaren Matrizeko adierazleen ebaluazioa egiaztatzen du.</p> <p>https://bit.ly/BalanceBC</p>
Balantze Hirukoitza	<p>SANNAS mugimenduaren tresna, erakunde baten gizarte-, ingurumen- eta ekonomia- inpaktua neurtzeko.</p> <p>https://triplebalancedesannas.com</p>
B Corps	<p>B Inpaktuaren Ebaluazioa eta horren legezko betekizunak eta izen bereko enpresa-mugimenduaren egiaztapena egin direla egiaztatzen du.</p> <p>https://www.bcorpSpain.es/ser-bcorp</p>
GRI (Global Reporting Initiative)	<p>Enpresek jasangarritasunari buruzko txostenak eta memoriak egiteko nazioarteko erreferentziarako metodologia sustatzen duen erakundea.</p> <p>https://www.globalreporting.org</p>

United Nations Global Compact	Enpresen eremuan jasagarritasuna sustatzeko Nazio Batuen ekimena. Horretarako, enpresek bat egiten dute giza eskubideei, lan-arauei, ingurumenari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko 10 printzipioekin. https://unglobalcompact.org eta https://www.pactomundial.org
Aniztasunaren eta LGBTI Inklusioaren aldeko Enpresa Sarea (REDI)	Enpresen eta profesionalen ekosistema, pertsona guztiak errespetatzen dituzten lan-ingurune seguruak sustatzeko lan egiten duena, haien identitatea, sexu-ezaugarriak, genero-adierazpena edo sexu-orientazioa kontuan hartu gabe. https://www.redi-lgbt.org
Denboraren Erabilera Sozial Berriak	Erakundeetan kultura-aldaketa sustatzeko ekimenak dira, denboraren erabilera osasungarriagoa, berdintasunezkoagoa eta eraginkorragoa izan dadin, lana, familia, bizitza pertsonala eta bizitza soziala bateragarri egitea eta erantzunkidetasuna errazteko. <ul style="list-style-type: none"> • Red denBBora Sarea (Bizkaia): https://denbbora.eus • NUST enpresen sarea (Bartzelona): https://bit.ly/NUSTBCN
ETI (Ethical Trading Initiative)	Enpresen, GKEen eta merkataritza-erakundeen arteko aliantza da, eta jokabide-kodeen ezarpena sustatu eta hobetu nahi du. https://www.ethicaltrade.org
ISEAL	Nazioarteko Gizarte eta Ingurumen Egiatzapenerako Etiketatze Aliantza. https://www.isealalliance.org
Fair Labor Association	Mundu osoko lan-baldintzak hobetu nahi ditu, enpresak sustatuz eta nazioarteko lan-arauetara atxikiz. https://www.fairlabor.org

Ziurtagiri eta bereizgarri sozialak

Berdintasuna Enpresan	Berdintasuna Enpresan Bereizgarria bikaintasun-marka bat da, eta Berdintasun Ministerioak ematen die lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatzeko konpromisoa duten enpresa eta erakundeak. https://www.igualdadenlaempresa.es
Bequal (BQ)	Zigilu horrek desgaitasunarekin arduratsuak diren eta eremu guztietan diskriminaziorik ezaren eta aukera-berdintasunaren aldeko politikak sustatzen dituzten enpresak bereizten ditu. https://bequal.es
SA 8000	Social Accountability International ziurtagiriak lan-baldintzak egiaztatzen dituen nazioarteko arau hau sustatzen du, legeria nazionalak, giza eskubideen nazioarteko tresnak eta LANEren hitzarmenak oinarritzat hartuta. https://sa-intl.org
ISO 2600	Gardentasunean, kontuak ematean, jokabide etikoan eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako enpresa-erantzukizuna sustatzen duen nazioarteko araua. https://bit.ly/ISO2600

OHSAS 18001	Occupational Health and Safety Assessment Series laneko segurtasuna, arriskuen prebentzioa eta osasuna kudeatzeko sistema bat da. Sortu ondoren, beste arau batzuk garatu dira, hala nola laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ISO 45001 araua eta laneko arrisku psikosoziala kudeatzeko ISO 45003 araua. Segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ziurtagiriak (AENOR): https://bit.ly/SaludLab
Osasuna Sustatzeko Jardunbide Egokiak (LOS)	Enpresen jardunbide egokien aintzatespena da, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutuak sustatua eta Laneko Osasuna Sustatzeko Europako Sarearen ereduari oinarritua. https://bit.ly/PSTEs
Great Place To Work	Lantoki bikainak aintzatesten ditu, antolamendu-kulturala, lan-ongizatea etab. kontuan hartuta. https://greatplacetowork.es
TCO	Produktu informatikoentzako jasagarritasun-ziurtagiria da. Ekoizpena, erabilera eta birziklapena erantzukizun-irizpideen arabera egiten direla egiaztatzen du. https://tcocertified.com
EthSI (Ethical and Solidarity Based Insurance)	Kalitate etiko eta solidarioaren bereizgarria, aseguru-etxeen, artekaritzen eta gestorien eta merkaturatzen dituzten produktuen gardentasun-maila eta jardunbide egokiak baloratzen dituena. https://ethsi.net
WFTO	Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea bidezko merkataritza sustatzen duen eta bidezko merkataritzaren printzipioen arabera ziurtapen-tresna propioa garatzen duen sare globala da. https://wfto.com
FairTrade	Sello internacional de comercio justo que certifica el cumplimiento de estándares relacionados con la producción o suministro de un producto o ingrediente. https://www.fairtrade.es
Fair for Life	Produktu edo osagai baten ekoizpenarekin edo hornidurarekin lotutako estandarrak betetzen direla ziurtatzen duen bidezko merkataritzako nazioarteko zigilua. https://www.fairforlife.org
SPP (Symbole des Producteurs Paysans)	SPP, Ekoizle Txikien Ikurra, bidezko merkataritzako ekoizle ekologiko txikien erakundearen kontinentarteko sare batek sustatzen du. https://spp.coop
Bidezko merkataritzako marka batzuk	<ul style="list-style-type: none"> Ethiquable: https://www.ethiquable.coop Ideas: https://ideas.coop Alternativa3: https://alternativa3.com Tierra Madre: https://www.tierramadre.org Equimercado: https://equimercado.org Espanica: https://cafedenicaragua.org Eticambio: https://eticambio.com

Ziurtagiri eta etiketa ekologikoak

Ecolabel Index	<p>Etiketa ekologikoen munduko direktoriorik handiena da. 500 etiketa ekologiko ingururen jarraipena egiten du 200 herrialdetan eta 25 sektore ekonomikotan.</p> <p>https://www.ecolabelindex.com</p>
EMAS	<p>EMAS (Eco-Management and Audit Scheme) sistema Ekogestioaren eta Ekoauditoretzaren Europar Batasuneko Erregelamendua da, EBk garatutako tresna, IKS (Ingurumena Kudeatzeko Sistema) bat ezarri duten erakundeak aintzatesten dituena.</p> <p>https://bit.ly/EMASUE</p>
ISO 14001	<p>Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat ezartzeko araua da. Sistema horrek antolakundean garatzen den jarduera bakoitzeko ingurumen-alderdiak sistematizatzen ditu, eta, horrez gain, ingurumenaren babesa eta kutsaduraren prebentzioa sustatzen ditu.</p> <p>https://bit.ly/ISO14001GA</p>
AENORen ingurumen-ziurtagirien katalogoa	<p>ISO 14001 sistemaz gain, AENORek ingurumen-ziurtagirien, -balidazioen eta -egiaztapenen katalogo bat du, honako gai hauei buruzkoa: ekodiseinua, energia-kudeaketa, produktuaren ingurumen-adierazpena, ekonomia zirkularra, hondakinen kudeaketa jasangarria, etab.</p> <p>https://bit.ly/AENORMA</p>
Ecolabel EU	<p>Europar Batasuneko etiketa ekologikoa edo Europako ekoetiketa Europako sistema ofiziala da, ingurumena errespetatzen duten produktuak eta zerbitzuak aintzatesteko eta identifikatzeko.</p> <p>https://ecolabel.eu</p>
Etiketa energetikoa	<p>Europako araudi honek aparatuak sailkatzen ditu kontsumitzen duten energia-kopuruaren arabera. Bonbilla eta lanparei eta mota guztietako etxetresna elektrikoek aplikatzen zaie (hozgailuak eta izozkailuak, garbigailuak, ontzi-garbigailuak eta lehorgailuak, telebistak eta pantailak, berogailuak eta aire girotua, sukaldeko aparatuak, etab.).</p> <p>https://bit.ly/EtiquetaEnergeticaEU</p>
Nekazaritza eta elikadura ekologikoa EU	<p>Europar Batasunean sustatutako zigilua, lurralde kontseiluek kudeatzen dituzten nekazaritza eta elikadura ekologikoko produktuentzat.</p> <p>https://bit.ly/OrganicoEU</p>
Eko Lurra	<p>Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak sustatutako ziurtagiria.</p> <p>https://ekolurra.eus</p>
EHKolektiboa	<p>Euskal Herriko baserri bioekologikoak, autoktonoak eta herrikoiak identifikatzen eta bereizten dituen partaidetzazko berme-sistema.</p> <p>https://ehkolektiboa.eus</p>
Biocop	<p>Nekazaritza biologikoan eta elikadura ekologikoan aitzindaria den Frantziako marka.</p> <p>https://www.biocop.es</p>
Naturland	<p>Nekazaritza, akuikultura eta arrantza sektoreetan ekoizpen ekologikoa sustatzeko nazioarteko sare indartsua da.</p> <p>https://www.naturland.de</p>
FSC	<p>Forest Stewardship Council nazioarteko erakundeak basoen erabilera arduratsua sustatzen duen produktu-etiketa garatu du.</p> <p>www.es.fsc.org</p>

PEFC	Programme for the Endorsement of Forest Certification: baso-kudeaketa jasagarria ziurtatzeko nazioarteko programa. https://www.pefc.es
Textile Exchange	Ehungintzaren arloko ziurtagiri multzo bat biltzen du, izaera organikoarekin, material birziklatuen erabilerarekin, animalien ongizatearekin eta abarrekin lotuta. (OCS, RCS, GRS, RWS, RMS, RAS, RDS eta CCS). https://textileexchange.org
Global Organic Textile Standard (GOTS)	Hornidura-kate osoan ehungintzako produktuen izaera organikoa ziurtatzeko nazioarteko arau bat da, eta beste gizarte-irizpide batzuk ere txertatzen ditu. https://global-standard.org
OEKO-TEX	OEKO-TEXek ehungintzako produktuen jasagarritasunaren hainbat ezaugarri buruzko ziurtagiriak biltzen ditu. https://www.oeko-tex.com
AENORen eraikin jasagarria	Eraikinaren jarduera jasagarriko (ingurumenekoa eta soziala) eta eraikuntza-materialen ezaugarriak bermatzeko irizpideak. https://bit.ly/EdificioSostenibleAENOR
WorldGBC GBCE	World Green Building Council eta Espainiako Eraikuntza Jasagarriko Kontseilua eraikuntzaren eta eraikingintzaren sektoreko sare global nagusiak dira, eta hiru irizpide hartzen dituzte kontuan: ekintza klimatikoa, osasuna eta ongizatea, eta baliabideak eta zirkulartasuna. Prestakuntzarako eta Ziurtagiri Berderako baliabideak eskaintzen dituzte. https://worldgbc.org y https://gbce.es
BREEAM	Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology eraikuntzaren jasagarritasuna ebaluatzeko eta ziurtatzeko metodo oso hedatua da. https://breeam.es
Eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagiriak	Eraikinen energia-kontsumoaren eta emisio kutsatzaileen berri ematen duten ziurtagiriak: <ul style="list-style-type: none"> • https://bit.ly/EJEZZ (Eusko Jaurlaritza) • https://bit.ly/ESCEE (Españiako Gobernua)
Birziklapenaren ikurrak	Birziklatzearen sustapenarekin lotutako hainbat ikur daude (produktu birziklatuak eta birziklagarriak, puntu berdea, beira, plastikoak, metalak, sendagaiak, tresna elektronikoak eta beste hainbat produktu birziklatzea). https://bit.ly/ReciclajeSimbol

Gizarte zibilak enpresa-jarduerak zaintzea

GEKren behatokia	Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Behatokia gizarte-erakundeek sustatutako ekimena da, eta gizarte-erantzukizun korporatiboa behar bezala aplikatzea du helburu. https://observatoriorsc.org
-------------------------	--

Enpresa Arduratsuen aldeko Plataforma	<p>Gizarte zibileko erakundeen plataforma da, eta Espainiako Estatuan enpresentzako giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloan behar bezalako arreta emango duen lege lotesle bat ezartzea sustatzen du.</p> <p>https://empresasresponsables.org</p>
Botere korporatiboa desegiteko kanpaina globala	<p>Herrien Subiranotasuna Eskatzeko, Botere Korporatiboa Desegiteko eta Zigorbetasunari Amaiera Emateko Kanpaina Globala (gizarte-mugimenduen, gizarte zibileko erakundeen, sindikatuen eta nazioz haraindiko korporazioen jarduerak eragindako komunitateen sarea da).</p> <p>https://www.stopcorporateimpunity.org</p>
OMAL (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia)	<p>Paz con Dignidad erakundeak sustatutako ekimena da, eta nazioz haraindiko enpresek Latinoamerikan duten zeregina zaintzea eta salatzea sustatzen du.</p> <p>https://omal.info</p>
Corporate Europe Observatory	<p>CEO ikerketa-, mobilizazio- eta salaketa-ekimena da, enpresa-korporazioek eta haien presio-taldeek EBko politiketan duten zeregina eta eragina aztertzeko.</p> <p>https://corporateeurope.org</p>
Herrien Auzitegi Iraunkorra (HAI)	<p>Nazioarteko iritzi-auzitegia da, eta herrien eta gutxiengoaren kaltetan egindako edozein delitu larriri buruz erabakitzea du helburu. Nazioz haraindiko enpresek giza eskubideen, eskubide sozialen, kulturalen, ingurumenekoen eta ekonomikoen urraketan duten zereginarekin lotutako ekimenak nabarmentzen dira.</p> <p>https://permanentpeopletribunal.org</p>
Clean Clothes Campaign Arropa Garbiak kanpaina	<p>Lan baldintzak hobetzeko eta jantzigintzaren industria globalean lan egiten duten pertsonak ahalduz lanean ari diren GKE, sindikatu eta kontsumitzaile-erakundeen nazioarteko sarea da. Espainiako Estatuan, kanpaina SETEM federazioak koordinatzen du.</p> <p>https://ropalimpia.org y https://cleanclothes.org</p>
Fair Wear Foundation (FWF)	<p>FWFk ehungintzaren industrian eskubideak eta lan-baldintzak defendatzea sustatzen du.</p> <p>https://www.fairwear.org</p>
Gatazkarik Gabeko Teknologia	<p>Alboan GKEaren proposamena da. Proposamen honen bidez, ezagutarazi egin nahi da baliabide naturalen kontrolaren eta ustiapenaren, giza eskubideen urraketaren, ingurumen-suntsiketaren eta teknologiaren artean dagoen lotura.</p> <p>https://www.tecnologialibredeconflicto.org</p>
Make ICT Fair	<p>Gizarte zibilaren eta tokiko gobernuen nazioarteko sareek sustatutako Egin ditzagun IKTak Bidezko proiektuaren helburua da manufacturaren eta mineralen hornidura-kateak aldatzea.</p> <p>https://bit.ly/ICTfair</p>
Banka Armatua	<p>Ekimen honen helburua da industria militarra finantzatzen duten banku-erakundeak salatzea, sentsibilizatzeko eta inbertsio-politika etiko eta arduratsuak eskatzeko</p> <p>https://bancaarmada.org</p>

III. ERANSKINA

Enpresa hornitzaileentzako galdetegia (eredua)

Galdetegia betetzeari buruzko informazioa	
Data	
Erantzuten duen pertsona	
Kargua	
Harremanetarako datuak	

Enpresari buruzko informazio orokorra	
Enpresaren izena	
IFZ	
Eratze-data	
Helbidea	
Webgunea	
Hornitzen dituen produktuak edo zerbitzuak	
Forma juridikoa	<input type="checkbox"/> Merkataritza-sozietateak <input type="checkbox"/> Ekonomia sozialeko sozietateak (mota adierazi): <input type="checkbox"/> Beste merkataritza-sozietate berezi batzuk (mota adierazi): <input type="checkbox"/> Autonomoak <input type="checkbox"/> Elkarateak <input type="checkbox"/> Fundazioak <input type="checkbox"/> Beste erregistro osagarri batzuk: <input type="checkbox"/> Laneratzeko enpresak <input type="checkbox"/> Enplegu-zentro bereziak <input type="checkbox"/> Beste batzuk (adierazi):
Erregistro publiko mota	
Akziodun nagusiak (indibidualak edo kolektiboak, publikoak edo pribatuak)	
Enpresa-talde batekoa da? Adierazi	
Enpresen sare edo plataformetako kide da? Adierazi	
Gizarte- eta/edo ingurumen-erantzukizuneko tokiko edo nazioarteko ekimenei atxikita al dago? Adierazi	

Langileak:	Emakumeak		Gizonak		Ez-bitarra	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Kontratututako langileak						
Kontratu mugagabeak						
Lanaldi osoko kontratuak						
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak						
Erantzukizuneko lanpostuak						
Barne-taldeetan, batzordeetan edo sindikatuetan parte hartzea						

Gizarte- eta ingurumen-erantzukizunari buruzko dokumentazioa

Eskura dagoen dokumentazioa zein den adierazi eta galdesortari erantsi.

- Jasangarritasun-memoria
- Etika- edo jokabide-kodea
- Berdintasun-plana
- Laneko arriskuak kudeatzeko eta prebenitzeko sistema
- Ingurumena kudeatzeko sistema
- Kalitate-sistema
- Beste batzuk (adierazi):

Ziurtagiriak: zigiluak, etiketak, arauak, sistemak, erregistroak edo sariak

(adierazi zeintzuk diren eta erantsi dagozkion egiaztagirak)

Gizarte-ezaugarriei buruzko enpresa-ziurtagiriak

Gizarte-ezaugarriei buruzko produktuaren eta/edo zerbitzuaren ziurtagiriak

Ingurumen-ezaugarriei buruzko enpresa-ziurtagiriak

Ingurumen-ezaugarriei buruzko produktuaren eta/edo zerbitzuaren ziurtagiriak

Gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak

(erantsi dagozkion egiaztagiria)

1. **Kalitatezko enplegua eta lan-eskubideak** sustatzeko neurriak: araudia eta lan-baldintzak, laneko segurtasuna eta osasuna, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea, prestakuntza, langileen parte-hartzea, etab.

2. **Genero-ekitatea** sustatzeko neurriak: berdintasun-politikak eta gizonen eta emakumeen arteko diskriminaziorik eza langileak hautatzeko prozesuetan, lan- eta soldata-baldintzetan edo erantzukizun-postuetarako sustapenean eta sarbidean, jazarpenari eta indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloak, LGTBI+ pertsonak ez diskriminatzea, etab.

3. **Gizarte- eta lan-inklusioa** sustatzeko neurriak: irisgarritasun unibertsaleko politikak eta prozedura; zaugarritasun soziala jasateagatik edo lan-merkatuan sartzeko diskriminazioagatik enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea; jatorri etnikoagatik, sexu- eta genero-aniztasunagatik edo dibertsitate funtzionalagatik ez diskriminatzeke politikak; laneratzeko enpresen bidez edo enplegu-zentro berezien bidez zerbitzuak edo bestelako gizarte-ekimenak azpikontratatea, etab.

4. **Tokiko ingurunearekiko eta komunitatearekiko konpromiso**-ekimenak: tokiko baliabideak eta enpresa hornitzaileak erabiltzea, erantzukizun fiskala, euskararen erabilera, kultura, prestakuntza edo ikerketa sustatzeko ekimenak bultzatzea, tokiko garapen-sareetan parte hartzea, gizarte-erakundeekin, nazioarteko edo hirugarren sektoreko lankidetzak-erakundeekin hitzarmenak eta lankidetzak egitea, etab.

5. **Ekonomia soziala eta eraldaketa ekonomikoa** sustatzea: ekonomia sozialaren balioekiko konpromisoa, ekonomia sozial eta solidarioko enpresen azpikontratazioa, finantza-zerbitzu eta -produktu etikoan erabilera, bidezko merkataritza, agroekologia, etab.

6. **Hornidura-katearen gardentasuna, ekitatea eta jasangarritasuna** sustatzea: ekipoen eta produktuen trazabilitatea kontrolatzea, enpresa hornitzaileen eta/edo azpikontratatu lan-, gizarte- eta ingurumen-baldintzak betetzeko eskakizuna, produktuen jatorria eta gizarte- eta ingurumen-ezaugarriak bermatzen dituzten etiketak erabiltzea, etab.

7. **Ingurumen-politika jasangarria** garatzea: ingurumen-arloko araudia betetzea, ingurumena kudeatzeko sistemak, produktu propioei edo hornidurei ekoetiketa jartzea, ingurumen-arloko prestakuntza, ekonomia zirkularra, etab.

8. **Emisio kutsatzaileak eta energia-eraginkortasuna murrizteko** neurriak: karbono-aztarnaren kalkulagailuak erabiltzea, energiaren eta lehengaien kontsumoa murriztea, energia berriztagarriak erabiltzea, karbono gutxiko teknologiak eta kutsatzen ez duten produktuak erabiltzea, mugikortasun jasangarria sustatzea, kutsatzen ez duten ibilgailuak edo trakzio elektrikokoak, etab.

9. **Hondakinak modu jasangarrian kudeatzeko** politikak: hondakinak kudeatzeko plana, hondakinen sorrera murriztea eta zaborra murriztea, norberaren produktuen edo horniduren bizi-zikloa edo ingurumen-ebaluazioa aztertzea, berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, etab.

10. **Merkaturatzeko zirkuitu laburrak** sustatzea: hurbileko produktuak eta zerbitzuak erostea, tokiko elikadura eta elikadura ekologikoa, merkatu sozialak eta tokiko merkataritza, etab.

Enpresaren edo haren produktu, zerbitzu eta hornitzaileen kudeaketaren gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko politikei buruzko beste gogoeta batzuk.

